

Bortzirietako Lagunak Minbiziari aurre eginez

Bortzirietan, minbizia izan dutenak biltzen ditu Lagunak elkarteak. Hilabetean behin elkartzen dira Lesakako Osasun Zentroan. Oraingoan, hamar bat lagun biltzen badira ere, egoera honetan dagoen jendea –baita senideak eta sentsibilizatutako nornahi– animatu nahi dute, bileretara joan dadin: «Eritasunaz solastea eta esperientziak elkar trukatzea denontzat mesedegarria da».

Eritasuna pasatu ondotik etorkizuna baikor-tasunez ikusten dute. Bere-
raien ustez, «garai ba-
tean minbizia heriotza
zen. Gaur egun ez,
orain minbizia bo-
rroka da, bizitze-
ko borro-
ka».



«Jendeak minbizia hitzari dion
beldurra kendu eta lasai ederrean
solastea nahi dugu, gripeaz
solasten ahal den bezala»



Elkarrizketa:

IKA Euskaltegiak

«Egia da euskaraz gazteen arteko hizkera ez dela gaztelaniaz bezain gaurkotua, baina hori ez da euskarak balio ez duelako, euskara hobetzeko eta jatorrago mintzatzeko ahal-
legin gutti egiten delako bai-
zik» diote IKAkoek. Beraiek argiratzaten duten Etxetik Plazara aldizkarian egindako berrikuntzetan ere mintzatu dira. Aldiro 150 bat ale zuzentzen omen dituzte.

3

6 Iritzia: Uso kontrapasa

Gai eztabaidatsu honen inguruan hiru iritzi jaso ditugu.

27 Kultura: Nafarroako Haur kantu txapelketa

28 Kirola: Sarako Urtxintxak eskubaloi taldea

50 neska ari dira eskubaloian Sarako elkartearen izenean. Bertalde, Saralegik 327 kiloko harria altxatu du.

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta erabili!



ORDOKI

ALTZARIK

Estilo ugari
mobleak

Kalitatea prezio egokian



Hilabeteko eskaintza berezia

Armairua (199), ohatzea (135), komoda (112), mahaittoak (52) eta ispilua bere markoarekin (95)



Erakusketa berritzeagatik %30a bitarteko **DESKONTUAK**

ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034

LESAKA

LAISTER ZABALIK

☎ 63 08 00

ALZAGA

uto escuela

KANTONBERRI, 2 - BEHEA • BERA • (lehen Artieda)

- Gidatzeko karneten tramitazioa
- Karneten berritzea

DATUAK.....

❖ *Matrikulazio kanpaina urrian egiten bada ere, martxan dauden taldeak osatzeko bertze deialdi bat luzatu dute orain, otsailean.*

❖ *Berritasun gisa hitano edo hika ikastaroa eskainiko dute.*

❖ *Gaur egun alfabetatzeko taldeak urritu egin dira, bainan euskaltegiatako ikasle kopurua igualtsu mantentzen omen da bertzela.*

❖ *TTIPI-TTAPAREkin banatzen den Etxetik Plazara gehigarriaren itxura eta eduki berriak aitzakitzat hartuz, euskararen egoerari gainbegirada labur bat egiteko aukera izan dugu.*

TESTUA:

ASIER G.

ARGAZKIA:

KARMELE TOLOSA

IKA euskaltegiak

"Gazteek euskara kutsatu egiten dute, 'euskañol' famatua sortuz"

ETXETIK PLAZARA ALDIZKARIARI ITXURA BERRIA EMAN DIOZUE.

Bai, urte berriarekin kurtso berria hasiko bage-nu bezala, Etxetik Plazarako maketazio eta edukia aldatu egin ditugu, batez ere arinagoa egite-egatik. Xorroxingo irrat-saioekin ere segitzen dugu, bertalde, hiztegi-a eta gramatika entzu-menaren bidez lantzen.

ZENBAT ETXETIK PLAZARA ZUZENTZEN DITUZUE ALDIRO?

100-150 bat ale bidal-tzen dizkigute, gehie-nak 25-50 urte bitarte-ko emakumeek. Hagitz gizon guttik idazten di-gu, hiru edo lauk gehie-nez ere. Gazte batzuk ere bidaltzen dute, forro polarrak eskuratzeko as-moz. Etxetik Plazara ge-higarriari buruz, erran nahi dugu IKA Euskal-tegiek egiten dutela, eta ez batzuk uste duten be-zala TTIPI-TTAPAK.

HEMENGO EUSKALKIA ZAINTEKO AHALEGIN BEREZIA EGITEN DUZUE. BELAUNALDI BERRIAK HITZ ETA ESAMOLDE AUNITZ GALDUKO DITUEN BELDUR ZARETE?

Ez dakigu zenbat euska-ra galduko den. Batere ez balitz galduko, hobe. Horretarako, komunika-bideetan, batez ere gaz-teentzako saioretan, eus-kara txukundu beharko litzateke. 'Euskadi Gaz-te' n adibidez; eta esko-



«Hemengo jendeak beldurra dio euskara batuari».

la-ikastoletan, berriz, zenbait irakasleren hiz-kuntza maila hobetzeaz gain, tokian tokiko euskalkia erabiltzen saiatu beharko lukete. Ez da nolana hiko lana, baina beharrezkoa da.

GAZTEEK LAGUNARTEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKERAN GAZTELANIAKO HITZ AUNITZ ENTZUTEN DA; ZERGATIK?

Egia da euskaraz gaz-teen arteko hizkera ez dela gaztelaniaz bezain gaurkotua. Baina hori ez da euskarak balio ez duelako, euskara hobe-tzeko eta jatorrago min-tzatzeko ahalegin gutti egiten delako baizik. Gazte aunitzek, edozein gauza erratean erosoegi jokatzen du eta gaztela-nia sobera nahasten du, hori bera errateko mo-du xuxenagoak badire-la jakinda ere. Eta horre-la euskara kutsatu egi-ten da, "euskañol" fama-tua sortuz.

HELDUEN ARTEAN, BERRIZ, HIZKUNTZ-KON-

PLEXUAK DITUZENAK BADIARA ORAINDIK?

Oraindik bai. Hemen-go jendeak beldurra dio batuari, nahiz eta be-raiek solasten dutena ere batua den. Euskara batua gipuzkera dela uste dute, eta mamu hori badute aunitzek. Zenbait gurasok ez daki-te segurutik solasten du-ten euskara ona den edo ez. Uste dute haurrek eskolan eta telebistaren bidez ikasten dutena de-la zuzena, baina haurrek gauza aunitz oker ikas-ten dute, eta gero gura-soek ere gaizki erabil-tzen dituzte.

► *"Eskola-ikastoletan, zenbait irakasleren hizkuntza maila hobetzeaz gain, tokian tokiko euskalkia erabiltzen saiatu beharko lukete."*

Minbiziari aurre egiteko Lagunak



Bortzirietan, minbizia edo kanzer gaixotasuna duten edota izan dutenak biltzen ditu Lagunak Elkarteak. Hilabetean behin elkartzen dira Lesakako Osasun Zentroan, hirugarren asteko ortziralean, arratseko 7etatik aitzinera. Oraingoan, hamar bat lagun hurbiltzen badira ere, egoera honetan dagoen jendea -baita senideak eta sentsibilizatutako edonor- animatu nahi dute, bileretara joan dadin: 'eritasunak solastea eta esperientziak elkar trukatea denontzat mesedegarri da'.

TESTUA : AITOR AROZENA
ARGAZKIAK : KARMELE TOLOSA

Lagunak elkartearen lehen helburua horixe da: «Guk izan dugun gaitzaren berri eman eta horrek norbaiti laguntzeko balio dezala, minbizia sendatzen ahal dela erakustea, alegia». Bileretan ez dute gai zehatzik lantzen, elkarrekin solastu, bakoitzaren egoeraren berri eman, esperientziak trukatu... «Horretaz gain ez dugu gauza haundirik egiten ez baitugu dirurik, gerora begira me-

dikuak ekarri eta solasaldi batzuk antolatzeko asmoa dugu, baina horretarako jende gehixeago biltzea eta dirulaguntza lortu nahi dugu». Elkarte legalizatu berria dute eta hemendik aitzinera hori moldatuko dela uste dute. Bileretara «jende gutixko» joaten dela iduritzen zaie. «Zure arazo berdina pasatu duen jendearekin egotea eta zure esperientziaren berri ematea garrantzitsua dela uste dugu, jende horrek ulertzen baitu arazoa. Guri lagundu egin digu behinpein, baina egia da jendea ez dela etortzen».

M^a Carmen Lanz, Rosi Olaziregi, Jesus Goikoetxea, M^a Angeles Mugika, M^a Asun Lujanbio, Maribel Pikabea, Anuntxi Huizi eta Isidora Irazoki dira hilabetero biltzen direnak eta solaskide izan ditugunak. «Noizbait bertze norbait etorri izan da, baina normalean gu gaude. Eritasun hau duen jende gehiago dago Bortzirietan, baina ez dute bileretara agertzeko pautua ematen». Senideak ere bileretara joatea gustatuko litzaike. «Gai batzuen inguruan hagitz sentsibilizatuak gaude eta gure ateraldiak ulertzeko, informatzeko...». Izan ere, bizitza erabat aldatu zaie, minbizia zutela erran zietenetik. «Konturatu gabe sentiberagoa bihurtzen zara, bizitza bertze modu batera baloratzen duzu, egoera hau pasatzen ez baduzu ez duzu ulertzen... Horregatik biltzea gustatzen zaigu, barnean duzuna kanporatu eta aunitzatan etxean ere erraten ez dituzun gauzak bota».

«Minbizia hitzari beldur dio jendeak»

Akaso, minbizia, hitza bera da beldurra ematen duena. «Irudi txarra dauka eritasun honek eta gaia gogorra da. Minbizia aditu eta jendeak aurpegi arraroarekin begiratzten dizu –isatsa dugun edo–, baina guk ez dugu inor kutsatu. Hor dagoen eritasuna da eta aurre egin behar zaio. Jendeak beldur eta tabu horiek kendu eta minbiziaz lasai ederrean solastea nahi dugu, gripeaz solasten ahal den bezala».

Lehen kanzerra heriotza zen, baina orain ez da horrela. Orokorrean, kasuen erdia inguru sendatzen ahal da, tenorez harrrapatu eta beharrezko tratamendu eginez gero. Bularreko minbiziaren kasuan, portzentai hori %95etik goitikoa da. «Gu geone gara adibiderik garbiena, eritasunarekin borrokatu eta hemen gaude-lako. Minbizia ez da heriotza, minbizia borroka da, bizitzeko borroka. Ez gara inor baino gehiago ezta inor baino ausartagoak ere, guk bizi nahi dugu, hori bezain ximplea da, ez dugu bertze aukearik. Gu ez gara eritasunaren bila joan, bera etorri da, ez gara heroek».

Jende aunitzek minbizia bizi guzirako dela uste du, baina «gu hemen bagaude, hori gaintu dugulako da». Lagunak elkartean biltzen direnak minbizia pasatua dute dagoeneko, kimioterapia eta erradioterapia tratamendu gogorak egin ondotik. Oraindik zenbait azterketa egin behar izaten dute, badaezpada. «Lehenbizi hiru hilabetetik behin, gero sei hilabetetik, urtean



Garai batean minbizia heriotza zen. Gaur egun ez, orain minbizia borroka da, bizitzeko borroka. Gu ez gara inor baino ausartago edo inor baino gehiago, guk bizi nahi dugu, hori bezain ximplea da.



Minbizia zelula bat hondatzea da eta zelulak denok ditugu. Hori niri, horrerri edo bertzeari gertatzen ahal zaio, edozeini. Gero, hori hedatzen da, tumoreak sortuz.




Baloreen zerrenda aunitz aldatu zaigu: egunerokoa gehiago baloratzen dugu. Unean uneko gauzetaz disfrutatu eta bihar zure burua gaizki somatzen baduzu, joanen zara berriro medikura, baina momentukoa goxatu.

behin... arriskua hor dago, baina orain behinpein kontrolatuta gaude».

Bainan zer da minbizia?

Jendearen beldur hori eritasuna ez ezagutzetik datorrela uste dute. «Jendeak ez daki zer den minbizia. Azken finean zelula bat hondatzea da eta zelulak denok ditugu. Hori niri, horrerri eta bertzeari pasatzen ahal zaio, edozeini. Ge-



Bularren azterketa emakumeak berak egin dezake etxean, baina badaezpada medikura ere joan behar da noizbehinka.

«Minbizia sendatzeko prebentzioa nahitaezkoa da»

Lagunak elkartekoak baikor ageri dira, minbiziari aurre egin eta garaile atera direlako. «Gu hagitz zoriontsu sentitzen gara, atera garelako. Zientzia aurreratua dago eta gu horretaz aprobetxatu gara, ez dugu deus berezirik egin». Isidora –taldeko adintuena 74 urterekin– da baikortasun eta umore horren adibide garbiena. «Duela hamalau urte pasatu nuen minbizia eta, orduaz geroztik, ez dut egun bat bera ere pasatu klinikan. Orain xaharra nago eta hilda ere ez du inporta».

Minbizia sendatzeko nahitaezkoa prebentzioa eta abudo hartzea dela kontuan hartuta, «horretaz solastuz eta izan bada jakinik, jendea medikura lehenago joanen dela» iruditzen zaie Lagunak elkarteko kideei. Izan ere, medikuek erraten dutenez, «minbiziak ez du oinazetik sortzen».

Orduan, nola prebenitzen ahal da? «Bularreko minbiziaren kasuan errebisioak maiz xamar eginez, gizasemeok ere gehixeago joan beharko genuke medikura –dio Jesusek, taldeko gizon bakarrak– bainan utziagoak gara».

Zerbait arraro somatzen duzunean garrantzia eman behar zaio. «Odoluzki edo hemorroide bat bada hobe, baina begiratu badaezpada. Errebisio on bat egin behar da, urtean behin bederen. Ez dugu ohiturarik, bakarrik zerbait somatzen dugunean joaten gara medikura». Bularrekoa erregaioa da harrapatzeko, norberak ukitzeko modua baitago. Hori bai, erretzaileei «zigarroak lehenbailehen uzteko» gomendatzen diete. Halere, Nafarroan prebentzio lana dextente aurreratua dagoela uste dute Lagunak elkarteko kideek.

ro, hori hedatzen da eta or-gano ezberdinak–bularra, birrikak...– hartzen ditu, tumoreak sortuz».

Bortzirietan, eritasun hau duen jende aunitz dagoela uste dute, baina ez dute ezagutzera ematen, «sekreto da. Garbi dagoena, gero eta minbizi gehiago dagoela eta gero eta gazte jende gehiago ikusten dela da, hori kontsultatan nabari dugu». ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.600 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
Internet:
<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>
e-mail:
ttipi@encomix.es

Zuzendaria: Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Kar-mele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Jai-one Otxandorena, Alba Fernandez, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogorza. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

Inprimategia: Gertu. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar-tea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Kontrapasa

Soinua errealitatea baino haundiagoa da



Fran AGARA
Beratarra

Hemen barna badire kontrapasako tokiak, Beran Larun magalean eta usategietan... baina lekuri fatatuena Belate inguru hori da. Heldu den urterako idea dute 250 postu paratzea Nafarroan, baina ez dakit nola markatuko dituzten, ez baitire udazkeneko berak. Postuak Lizuniagan paratzea edo Alzate karrikan paratzea igual-igual da. Bi mila usoko muga paratu dute, baina 2.000 uso ez dira hilko ezta egun osoz ehizturi denak arita ere. Hemengo jendea ez dut somatzen kontrapasan aritzen denik, baina eskatzen dutena aukera izatea da. Nik uste soinua errealitatea baino haundiagoa den. Libre izanen balitz jendea ez zen joanen, baina debekatu ezker kontra egiten dute, kontrapasa ehizaren sinbolo gisakoa baita. Bertzalde, usoa lehenago bezala edo gehiago ikusten dut, baina ibilbideak aldatu dituzte. Azken 6-7 urtetan kosta aldetik heldu da gehiago usoa, eta ez lehengo eritimoan. Presione sozial haundia dagoelako gertatzen da hori, ez bakarrik ehizturiarena. Basoak ez dira lehenago bezala, karreterak alde batera eta bertzerak...

Orain usoak gutiago ikusten dira, gauze berdin gaten direlako egunez bezala



Jean NOBUIA
Senperarra

Nahi gaituzte lehenagoko ehizko manerak kendu, sareekin-eta ehizatze modu berriak ezarri. Etxalarren edo Saran... hori nahi dute kendu Frantziar. Galduak galdu, gu larunbatean (14an) Pariserat gan ginen manifestatzerat. Ehiztariak behar du ehiza defendatu, hori galtzen badu ez baitu gehio fitxik. Neri iduritzen zait lehen bezainbat ehizi badela, baina badire urte onak eta urte txarrak. Urte onak direlarik ez du inork deus erratan, eta orain urte txarrak direlarik denek erratan dute. Mendian badire gauzak biltzen baldin badire berriz etortzen direnak, onddoa biltzen baduzu ez du erran nahi ondoko urtean ez dela izanen, eta ehizarekin gauza berbera da. Usoak lehen baino gutiago ikusten dira baina usoak gauze berdin gaten direlako egunez bezala, eta aurten arto-lurretan uso anitz gehio gelditzen delako lehen baino. Ehiztariak behar du ehizari kasu eman eta behar du kanpoko gauzeri kasu eman, maita delarik gauza bat ez da dena desegin behar. Horiek dira nere pentsamenak.

Gure ustetan ehiza mota guziak debekatu beharko liriteke 5 bat urtez



Jean-Paul URCUN
Organbidexka elkarteakoa

Organbidexkakak kezkatu gaituzte usoen aferarekin, egoera baloratzeke ere gai ez direla aski frogatu baitute iparraldean arazoaren ardura hartu dutenek. Zenbat azalpen harrigarri egin ote dituzte "arduradun" hauetxez ehizatutako edo zenbatutako txori migratzaileen murrizketa justifikatzeko? Gaueko migrazioetik hasita migrazio ozeanikora, "goigoikoa" edo balizko "bertze toki bateko" pasa aipatu dituzte; trenen tunelak bakarrik ahantzi dituzte aitzaki gisa, beharbada. Gaur egungo egoera argia da: uso transpirinaria kinka larrian dago, eta neurriko erantzun bat behar du berehalaxe, ez badugu nahi uso amerikarrarekin bezala gertatzea, XIX. mende hondarrean milaka milioi izatetik XX. a. hasieran gutxitu desagertera pasa baitzen ehizaren eruz. Nahiz eta lehenbizikoz kontrapasa lege kanpo utzi duten Frantziako hegoaldean, prefetak usoa "animali kaltegarri" izendatu du aurten ere, Ehiztarien Federazioaren eskaerari jarraituz. Gure ustetan 5 bat urtez ehiza mota guziak debekatu beharko liriteke usoen murrizketa gelditzeko bide bakarra.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 16etatik 20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitopenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

IRAKURLEAK MINTZO

Leitzako gazteei:

Eskutitz honen bidez Leitzako gazteei eskertu nahi nieke joan den igandean (urtarrilak 25) ihauteriak zirela eta, herrian jarri zuten festa giro alai eta atseginagatik. Badakit jende askok hau lelokeria bat dela pentsatuko duela, gazteak festarako beti prest egoten direlako. Denen, aurtengo egandeguerdian festa giro hori sortzeko beraiek hainbeste maite duten gaupasa utzi behar izan zuten eta horrela guk, helduok, festa gozatzeko okasio paregabea izan genuen, elur eta hotz ikaragarria izan arren.

Azken urte hauetan ihauteri igandeak nahiko tristeak eta motelak izaten ziren. Beraz, aurtengo arrakasta ikusi ondoren, eskertuz gainera horrela jarrai dezaten animatu nahi nituzke, ia beraien arrimoan helduok ere, etorkizunean animatzen garen eta "ikusleak" izan beharrean "partaide" bihurtzen garen.

Besterik gabe, agur bero bat.

M^a CARMEN AZPIROZ
LEITZA

**Etxalar-Zerain-Etxalar edo herri baten auzolana**

1998ko otsailaren 7an egin genuen bidaia Zerain herri- eta pentsatzen dut, ikasi, zerbait ikasi izanen genuela. Nik gauza pare bat aipatu nahi nituzke. Lehena, turismoa eta nekazaritza loturik joatea posible dela, eta hori lortzeko bertako jendeak parte hartzea behar beharrezkoa dela.

Bigarrena, auzolana. Ohitura zaharra eta Etxalarren galteko puntuan dagoena. Auzolana gabe Zerain herrian ez zuten deus lortuko. Behin eta berriz, lakoba Errekondok erraten zigun: "Ez begiratu zer den, baizik eta nola egin den edo egiten diren gauzak".

Etxalarren zer egiten ahal dugu? Segituan atera ziren ideia batzuk; museo tiiki bat, hiru-lau gazte udan gidatzaile moduan lanean (turistentzat, noski), ibilbide motzak herriaren inguruan, etab... hitz politak, benetan, hauek. Baina nork mugitu jendea gauza hauek egiteko? Turistatetik bide direnak (nekazal etxe, ostatu...)? Altxatak? Udaletxeak?

Izen hauek atera ziren egun hartan, motorra bezala erabiltzeko. Ni ausartuko naiz gauza bat proposatzen. Hasi behar dugu lanean, Zerain herrian hasi ziren bezala, etxe eta baserrietako gauza zaharren katalogo bat egi-

ten, eta dei egiten diet zuenki bidaia hortan egon zirengiz eta emakumeei eta, orokorrean, etxalartar guztiei. Hartu paper bat, joan goira eta hasi gauza zaharrei armiarma sareak eta errautsa kentzen. Horrela gauza zahar horiek kayalagatu eta gehiago estimatuko ditugu eta ez dizkiogu

emanen, agertzen den lehendabiziko ijitoari. Uste dut hiru hilabeteko epea nahikoa dela, bakoitzak bere etxeko zerrendak egiteko.

Lehen pausu hau oso garrantzitsua da, batez ere ikusiko delako jendearen borondatea eta lanean aritzeko gooa. Auzolanean.

MOXORRO
ETXALAR

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu behar dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

Zubietako Tomas izeneko bati:

Tomas jaunari atzundu egin zaio esatea bere idatzian asitoa arrantza egiteko gogo haundiarekin gelditu zela oilarren kukurrukua aditu ondoren.

Dirudienez, Tomasek obsesionatua segitzen du oraindik nik orain dela urte mordoxka udaletxean egindako gestioarekin. Tomaseri esan behar diot Kotetoren gestioaz hitzegitean garbi hitzegiteko eta ez zeharka eta egi erdiak esanez. Ez bazara ausartzen jendeak ulertzeko moduan hitz egitera (ez naiz batere harritzen) hobe da mingaina kabitzen den lekuan sartzea. Gainera haxe esango dizut: niri inporta zait zubitar askok zer pentsatzen duten nik egindako

gestioetaz, baina Tomasen iritzia ez zait batere axola. Nik badakit, garbi esanda, Tomasen haserreak nondik heldu diren. Uste zuen nik alkate egotean bere monagillo izanen nintzela eta bere interes pertsonalak nik udalletxean defendituko nituela eta tiroa kulatatik atera zitzaien. Bukatzeko proposamen bat egiten dizut, eta serio gainera: gonbidatzen zaitut eztabaida bat egitera, nahi duzunean eta nahi duzun lekuan, garbitzeko ulertuezinak herriko arazoetaz solasteko eta konponbidea bilatzeko asmoan. Baldintza bat bakar jaritzen dizut: herritar nahi duen guzuen aurrean egitea. Espero dut zure partetik gonbite honeri baietz esatea bestela geldituko zara zubitar askoren aurrean azpilan zikin-egile bezala edo politikero kaxkar bezala.

KOTETO



Tel.: 581226
Faxa: 452453

Bortzirietan

107.2

FM

ttipi-ttapa



Ameriketara bidaltzea erdi prezioan gure bitartez

Frankeo Kontzertatuari esker, arabista berbera guk bidali ezker, zuk bidaltu baino erdi prezioa kostako zaizu.

Iparraldetik deitzeko 19-34-48-
Hegoaldetik deitzeko 948-

631188

 **Julian YANCI** *Lesakarra*

Gabezia demokratikoa? Noski.



Eskutitz honen hasieran argi utzi nahi nuke arazoak elkarrizketaren bidetik moldatzen dituen siste-

ma demokratikoan sinisten dudala, bere ordezkariak edo gobernariak aukeratuz eta parlamentu desberdinei herri-subiranotasunaren ordezkariak emanaz.

Egia da sistema demokratikoa eraikitzen zaila dela eta bere denbora eskatzen duela, kontrol, funtzionamendu...

mekanismoen hornitu behar baita, eta Estatu Espainiarraren kasuan 40 urteko atzerapena daramagu (ez dezagun "Diktadorea" atzendu).

Espainiar demokraziak gabezia aunitz dituz oraindik, kontrol mekanismoetan adibidez (GAL, Roldán auzia, korrupzio orokorrak, etab...) baina baita berezko funtzionamenduan ere. Eta azalduko dut. Teorian "Autonomien Estatuan" bizi gara eta horietako bakoitzak bere "Estatutu edo Hobekuntza" dauka. Hau da, autogobernu maila bat dago: bakoitzari, konpetentzia konkretu eta eskusiboa, herriaren subiranotasuna dartzan berezko instituzioak, azken finean, bere etorkizunaren jabe izateko ahalmena duela. Denborarekin jakin dugu ia guzti hori ez zela erreal eta euskal eta katalan nazionalismoak "otzantzeko" saiakera zela. Estatu bakarraren prestaketan (nazioanizta, kulturazitza, etab., beraien erranetan). Euskaldunek frogatu dezakegu adarra jotzen ari zaiz-

kigula. Hasiera batean euskal instituzioek funtzionatzen dute, baino Espainiaren gustukoak ez diren erabaki garrantzitsuak hartu orduko lotsagabeki "betoa" jartzen diete. Zer legitimidade du Espainiako Gobernuak euskal Parlamentuen erabakiei "betoa" jartzeko? Non dago demokrazia, non hitzarturiko autonomia, non konpetentzia guziko gaietan geure erabakiekiko errespetua?

Gibelera botatuko erabaki edo betegabeko akordio zenbait aipa ditzakegu:

Non dago demokrazia, non hitzarturiko autonomia, non konpetentzia guziko gaietan geure erabakiekiko errespetua?

-Gernikako Estaturua eta Nafarroako Foruaren Hobekuntza osagabeak, transferentzia aunitz oraindik zintzilik daudela.

-Gasteizko Parlamentuaren euskal presoak hurbiltzeko erabakia ukatzea.

-Gobernu Zentralaren errekurtsoa gure diputazioen inbertsioa erakartzeko sustagarri fiskalei dagokionez.

-Justiziaren trataera desberdina GAL eta ETaren inguruan eta Gobernu espainiarren kolaborazio eza dena argitzea.

-"Euskal Herriaren Autodeterminazio Eskubidea" ez onartzea, bertze herrietan onartzearen alde daudenean (Sahara, Palestina...).

Hau dena ikusirik, zer egin dezakegu? Nola kendu inpotentzia sentazio hau? Ez al dago, beraz, nolabaiteko gabezia demokratikoa?

 **Jon LEKUBERRIA** (*Lesaka*), **Jaione IRIZARRI** (*Elgorriaga*) eta **Gabriel UNSION** (*Bera*) *Itoitzekiko elkartasun taldearen izenean*

Amalurra defendatzeagatik hemeretzi urte

Duela ia bi urte, 1996ko apirilaren 7an, ITOITZEKIKO ELKARTASUNA taldeko 8 kidek Itoizko urtegiaren zimentua garraiatzeko erabiltzen diren kableak moztu zituzten. Honen ondorioz urtegi erraldoiaren obra handiena gelditzea lortu genuen. Eta hala jarraitu zuen 10 hilabete luzez, ixilpean, beste batzuk jarri zituzten arte. 8 solidarioak ekintza burutu eta bertan gelditu ziren, atxilotetaren zain. Iruñeako gartzelan 2 hilabete igaro ondoren fidantzarik gabe kaleratu zituzten. Orain-

goan berriz Iruñeako auzitegiak 8 solidarioak epaitu ditu martxoaren 9, 10 eta 11n. Gartzela eskakizunak lekuz kanpo daudela ziur gaude:

* Nafarroako Gobernuaren akusazio partikularrak, 19 urte eskatzen du bakoitzarentzat.

* Fiskalak, 11 urte bakoitzarentzat.

* Uraren aldeko plataformak, 3 urte.

* Estatuko abokatuak, 3 urte.

* Etrepres-ek, 3 urte.

Legeari begiratu, ordea, "KALTE"en akusaziopean ez dago inor gartzelaratzetik eta kasu honetan "ESTRAGU"en akusazioa lekuz kanpo dago. Kalte bakarra, herri, gizaki eta luraren ginetik "pantanokeria" hau inposatu nahi digutenei egin geniena da.

URTEGIA ORAIN
Bi urte hauetan urtegiaren paretak gora egin du izugarri, Txintxurriean ezta eta makinak aurrera darraiten mendia txikitzen, urtegia gauzatzeko ezinbestekoa du-

ten Aoz-Nagore errepede berria hasi dute dagoeneko, Nagore goikaldeko lurak bortxatuz (Txintxurriena aldeko obrak ilegalak izanik). Gaur egun obrak gelditzea falta den gauza bakarra 13.000.000.000 pta ordaintzea da eta hori gutaz aurpegi irri egitea da. Instituzioak pilota partidu batean dabilta eta azkenean pilota konstituzionalari ailegatu zaio. Honetaz esan beharra dugu konstituzionalaren erabakia hilabetez edo urtebe- tez luzatzeko aukera daukala eta bi aukera daude:

Legeari begiratu, ordea, "KALTE"en akusaziopean ez dago inor gartzelaratzetik eta kasu honetan "ESTRAGU"en akusazioa lekuz kanpo dago. Kalte bakarra, herri, gizaki eta luraren ginetik "pantanokeria" hau inposatu nahi digutenei egin geniena da.

konstituzionalak auzia onartzen badu (berriaz urtetan luzatzen ahal den gauza) eta auzia onartzen ez badu (obra guzia legala izango zen). Argumentu legetatik aparte giza argumentuak zein ekologiko eta ekonomikoak baditugu AMALURRA defendatzeko eta ez dugula ilegalak ez eta legalak den urtegi nahi!!!

AMA LURRA DEFENDA DEZAGUN. ITOIZ LURRERATU!!!

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias, 98ko otsailaren 10a

«Gogo aunitz dut eskuz banakako txapelketan aritzeko. Nere etorkizuna pilotari bezala jokoan dut. Aunitzeri ahoa ixten ahal diet eta nitan konfidantza izan dutenei poza eman».

Mikel GOÑI
Oronozko pilotaria
Diario de Noticias 98-II-10

«Nafarroako Gobernuak EHNERi dirulaguntza ukatzeak intentzio ekonomikoa eta politikoa du, sindikatu bat saritu eta bertzea zigortzera bideratuta».

Mikel PETRIRENA
EHNE-Nafarroako lehendakaria
Egin 97-II-17

◆ **Zer duk errexagoa, ostatuan lan egitea edo zaldiak hezitzea?**

❖ Zaldiak hezitzea.

◆ **Ostatua, 1'30etarako itxi behar izatearekin konforme hago?**

❖ Ez, norberak ikusi behar dik, hori bai, pasatu gabe.

◆ **Kirolik gustokoena?**

❖ Sokatira.

◆ **Astebururako planik onena: zaldian paseatu, juerga egin edo sokatiran aritu?**

❖ Onena denak batera. Hiruak aunitz gustatzen zaizkit.

◆ **Bestondorako errezetarik onena?**

❖ Ongi jan, normalean ostian gosea izaten diat.

◆ **Nongo bestetan ez duk inoiz hutsik egin?**

❖ Auniztan, orain arte Goizueta, Leitza, Arantzan... Orain hasi nauk pixko bat huts egiten.

◆ **Sanferminak ala inauteriak?**

❖ Sanferminak.

◆ **Emakumeak zaku-zahar gisara, bai ala ez?**

❖ Bai, dudik gabe. Gero eurek ikusiko dute ateri edo ez.

◆ **Amets bat...**

❖ Ametsak aunitz, baina errealdadea bizi behar da.

◆ **Bakailua, rocka edo trikitixa?**

❖ Trikitixa.

◆ **Musika talde bat?**

❖ EGAN.

◆ **Zer eramanen hukeen irla batetara?**

❖ Neska eta zaldi bat.

◆ **Eta zer ez?**

❖ Lana.



Joxe Angel ZUBIRIA

Tabernaria. LESAKA

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188


ttipi-ttapa



631188

Zure
publizitaterik
onena

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27



Ostargi
Optika

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

PIKABEA
pinturak

Molinero drogerian
galdetu

Etxe barneko hezetasan eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

Iaz egindako oihan lanetarako dirulaguntzak

1997. urtean «5b helburu» Baztan eta Malerrekako herrietan egindako oihan lanetarako dirulaguntzak banatu ditu Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Sailak.

Eskualdeko herriei dagokienez, 35.125.500 pezeta jasoko dituzte. Bidasoa-Berroarango Juntak bi laguntza hartuko ditu (5.147.420 pezeta guzira). Gainerako udaletan, honela banatuko dira laguntzak: Urrotzen 613.400 Pta; Oitzen 5.471.646 Pta; Donamarian 7.751.000 Pta; Donezteben 463.000 Pta; Beintza-Labaien 5.736.000 Pta; Elgorriagan 979.600 Pta; Iturenen 4.687.497 Pta. eta Baztanen 4.725.937 pta.

Bertizko oihana eztabaida iturri

Bertizko oihanean egin beharreko arbol botatzea dela eta ez dela eztabaida franko sortu da. Nafarroako Gobernuak, basoa bizirik mantzekotan zerbait arbola kentzea nahitaezkoa dela uste duen bitartean, bertze batzuk arrazoi espekulatiboak aipatzen dituzte.



Amuarrain arrantzan, apirilaren bukaera arte ezin izanen da erreka barnera sartu

Artxiboa

Martxoaren 15ean zabalduko da arrantza denboraldia

Asteartetan ezin da izokin eta amuarrainik hartu

TTIPI-TTAPA

Martxoaren hirugarren igandetik aitzinera arrantzan egin ahal izanen da gure erreketan. Izokinen kasuan, 75garrena harrapatzen denean edo, kopuru honetara ailegatzen ez bada, uztailaren 20an itxiko da denboraldia. Egun horietatik kanpo, Bidasoan debekatua egonen da edozein arrain arrantzatzea Do-

neztebeko San Tiburtzio presatik Endarlatsa bitartean. Asteartetan ezin izanen da arrantzarik egin, besta eguna ez bada bederen eta bertze arrantzalaren bat esperoan egonez gero, hogeit hamar minutu baino gehiago ezin izanen da izokin arrantzan aritu.

Amuarrainei dagokienez, denboraldi ofiziala abuztuaren 31 arte luzatuko da -asteartetan ezin da arrantzan

egin-. Ekainaren 30a arte, arrantzale bakoitzak eguneko bortz amuarrain har ditzake gehiezin, eta egun horretatik aitzinera, berriz, hiru. Apirilaren 30a arte ezin izanen da erreka sartu amuarrain arrantzan.

Martxo eta apirilean goizeko 7etatik gaueko 9,30etara; maiatzetik uztailera 6,30etatik 10,30etara eta abuztuaren 7etatik 10,30etara egin ahal da arrantzan.

Koipuak Bidasoa bazterrean

Nafarroako Gobernuo ordezkariak errandakoaren arabera, Bidasoa ibaian dauden koipuak direla-eta ez dute oraindik kezurik jaso nekazarien aldetik. Metro bat luze eta 10 kiloko pisua izaten ahal duen arratoiaren antzeko animalia Hegoamerikakoa da berez, eta garai batean Ipar Euskal Herrian sartu zuten, haien larruak eskaera handia baitzuen merkaturian. Egun, animalia hauen izurritea dago Ipar Euskal Herrian.

Juan Carlos Bascones, Nafarroako Gobernuo Natur Errekurtsoetarako sailburuak azaldu duenez, Nafarroan koipuak gailendu direnik errateko «ez dago arrazoirik eta etorkizunean gertatzen denaren arabera erantzuna emanen dugu».

Koipua erreka bazterrean bizi ohi da, baina arazoak sor ditzake nekazarien lurretan, aunitz gustatzen baitzaizkio barazkiak. Ingurugiroan oraindik kalterik sortu ez badu ere, ez du batere probetxurik eta Basconesek adierazita koaren arabera, «Gobernuak ez du babestuko inolaz ere».

BOTXO ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

FOTO GOIKO
Altzate 26
Tel.-Fax: 630515
BERA

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut
631342 BERA • 637172 LESAKA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — 63 07 63

Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
63 14 03 • BERA

Igande honetan egingen da IX. mendi bizikleta ibilaldia

Bi ibilbide izanen ditu beti bezala, 28 eta 18 kilometrokoak

ASIER GOGORZA

Igande honetan korrituko da Gure Txokoak Berako Udala eta Nafarroako Gobernua-ren laguntzaz antolatzen duen Mendi Bizikleta Ibilaldia. Aurtengoarekin bederatzigarren edizioa beteko du proba honek eta erran behar da "mountain-bike" zale-tu franko elkartzen due-la urtero.

Beti bezala bi ibilbi-de bereizi dituzte anto-latzaileek. Txirrindulariak Gure Txokoatik aterako dira goizeko 10etan. A ibilbidea egiten dutenek Sarraila aldera joko dute. Ibardin arte dauden malda kozkorak ateri eta gero, Usategietara jausteko bixi-bixi. Han jan-eda-tekoak partituko omen dituzte atsedean pixka bat hartu eta indarrak berritzeko, eta ondoren Landagaitan barna Lizuniagara abiatuko di-



Goizeko 10etan abiatuko dira lamoteneatik.

ra, handik Santa Barbara inguratuz berriz ere herrirat itzultzeko. Ibilbide ttikia -18 km- hauta-

tzen dutenek, ordea, Usategietaraino ibilbi-de berbera osatu behar-ko dute, baina hortik be-

heiti hartu eta herrirat jautsiko dira zuzenean.

IZENEMATEA 8,30ETAN

Izenematea goizeko 8,30ak aldera idekiko da batzuentzat zein berzteentzat, eta ibilbide luzea egiten dutenek gehiago ordaindu behar-ko dute: 1.000 pta. B ibilbidea egiteko, ber-ritz, ehun duro. Gogoratu dugu 100.000 pta baino gehiagotan baloratua dagoen mendi-bizikleta eta kirol-tresneria zozketatuko dela itzulia akautzean.

Iazko edizioan 150 lagun bildu ziren proba honetan, eta Caravanas Oiartzun taldeko Jon Aroza izan zen azka-rrena 28 kilometroko ibilbidean. Ttikian, ber-ritz, Xabier Banda eta Javier Martinez izan zi-ren garaile.

Beti izanen da irabaz-tera aterako denik, bai-na berez ibilaldia ez da inongo txapelketarako puntuagarria.

Erakusketa, antzerkia eta afaria Emakumearen Astearen barnean

Igande honetan zortzi, emakumea-ren eguna izaki, Uxua emakume taldeak hainbat ekitaldi prestatu ditu egun berezi hori ospatzeko. Martxoaren 5, 6, 7 eta 8an Kultur Etxean

ikusgai izanen den erakusketarako lanak entregatzeko datorren asteazke-na finkatu dute, bertzalde. Goizean 11etatik 1etara eta 5etatik 7etara eraman behar-ko dira.

Martxoaren 6an, berriz, Melody Sister Iruñeako antzerki taldeak "Con lo puesto" obra antzeztuko du, 2 emakume eta sikologoaren arte-ko solasaldia ager-tzen duena. Kultur

Etxean izanen da, arratseko 8etatik aitzin. Egun bere-an, antzerkia akau-tu orduko afaria egiten dute Zalain jatetxean, trikitixa eta guzi. Apunta-tzeko telefonoa: 631106. Izena

ematerakoan 2.000 pta ordain-du behar da. Biha-ramonean, Lami-xine Antzerki Tal-dekoen eskutik txarla-antzerkia antolatu dute. Arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

flash



Lamixine

Antzerki Taldearen lehendakari berria izendatu dute Beatriz Matxiarena. Orain arte Jose Luis Bera-sategik egiten zituen lanen ardura izanen du hemendik aitzina. Berarekin kontak-tuan jartzeko ho-nako telefono hau utzi digute: 631293.

Kultur Batzordea

Herriko kultur elkar-te eta talde desberdi-nak elkartzen dituen batzordea egunotan biltzen ari da Herriko Etxean, urte guziko kultur eskaintza era-baki eta Udalak ematen duen dirulagun-tza euren artean partit-zeko. Hurrengo alean emanen dugu informazio gehiago.

Udalak

34,2 milioi Pta jaso-ko du medikuaren kontsulta berri eta zabaltzeko.

Uraren tratamendua

egiteko 238,9 milioi Pta inbertituko da. NILSA izeneko en-presa publikoak fi-nantziatu du.

LABEZAR
© 631076 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 63 03 70 • BERA

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

Gozotegi-Jaione
Altzate, 19 • 630786 • BERA

LESACA

San Fermin elkarteak urteko egitasmoen berri eman du

San Fermin Jubilatuko elkarteak urteko egitasmoak zehaztu zituen otsailaren 7an egindako batzarrean, elkarteak burutzen duen seigarrenean, hain zuzen. Lehenbiziko ekitaldia, iñaute igandean egindako afaria izan da. Hare, urte hasieratik abendura bitartean gimnasia ikastaroan ari dira, astelehen eta ortzegunetan eta maiatza bitartean neguko karta txapelketak jokoan dituzte (mus, seiak, *despiste...*).

Etorkizunera begira, larunbat honetan zortzi, hau da, martxoaren 7an Xabiererra autobusean egingen duten bidaia dago. Goizeko 8,30etan abiatuko dira plazatik eta izen ematea lehenbailehen egin behar da erretiratuen egoitzan. Bidai gehiago ere izanen dituzte, noski. Apirilaren 15ean Gernikara joanen dira, maiatzaren 22an Urbasara, uztailearen 17an Candanchura, irailaren 25ean Errioxara eta abenduaren 19an Tolosako ferietara.

Mendi taldea ere ez da geldirik egonen. Honela, maiatzaren lehen araututako martxa burutuko dute, ekainaren 6an San Antonera joanen dira, ekainaren 24an San Juan Xarrera eta abuztuaren 23an Agiñara. Elkartearen Eguna urriaren 18an izanen da.



Suhiltzaile parke berriaren lanak zitzu bizian

Martxa honetan segituz gero, apirilaren erdialderako akautuak egoten ahal dira su-hiltzaile parke berriaren lanak. Aurrekontua ia 30 milioi pezetakoa da eta PADENASA enpresa ari da obra egiten.

Argazkia: Aitor

Euskal Herriko sokatira txapelketaren tiraldiak martxoaren 7an frontoian

Beti Gazte bikain hasi da 560 kiloko kategorian

AITOR AROZENA

Beti Gazteko sokatira taldeak ederki hasi du Euskal Herriko sokatira txapelketa. 560 kiloz beheitiko mailan hasi dira eta otsailaren 15ean Leioan burututako lehen jardunaldian beraien multzoan nagusitu ziren, tiraldi guziaz irabaziz gainera.

Kategoria honetako hurrengo jardunaldia Lesakako frontoian jokatuko dute martxoaren 7an, larunbat honetan

zortzi, beraz herritarrak animatzeko aukera polita izanen dugu. Hirugarren jardunaldi baten ondotik, apirilaren 26an izanen da finala Amezetan, bi multzoetako hiru lehenbizikoekin. Txapelketa honetan hamabi talde ari dira, bi multzotan banatuak. Beti Gazterekin batera Torrekolanda, Iparralde, Badaiotz, Arrizkozubi eta Imotz ari dira. Bertze multzoan Abadiño, Areso, Barrundia, Euskal Kirol Zaleak, Auzolan-

Igeldo eta Altamira Gazteak. Lehen jardunaldiko sailkapenean ere, hemen idatzitako ordenean geratu ziren. Arinenean ez ezik, maila guzietan parte hartzeko asmoa dute Lesakarrak. Honela, asteburu honetan 600 kilotan tiraldia izan dute Oartzunen eta 680 kilokoena Atarrabian.



Elias GARRALDA

Personaia

«Hemen inguruko paisaia mundu guziri gustatzen zaio»

Ez dira aunitz izanen Elias Garralda ezagutzen dutenak, baina margolari famatu hau Lesakan sortu zen duela 72 urte. Espainiako Gerra Zibila zela eta Frantziara joan ziren bere gurasoak eta handik Kataluniako Olot herrira, Demetrio aitak hala erabakita. Bere margolanak—Nafarroako paisaiak, gehienak—ikusgai daude martxoaren 12a bitartean Iruñeko Garcia Castañon aretoan. Bere erranetan «hemen inguruko paisaia mundu guziri gustatzen zaio, baina batez ere niri. Oloteko Paisai Eskola Gorenean margotzen ikasten ari nintzenean, Nafarroara itzuli eta Bidasoako erreka bazterrek pintatzea burutuan nuela uste dut». Garraldak dioenez «beti kolore berdea gustatu zait, lurralde honetan aunitz agertzeaz gain, tratatzeko hagitz zaila delakoz». Margotzen duena aurrez aurre izatea gustatzen zaio, «argazki batetik zuzenean margotzea, kopia bat baino ez da».

BEHEKO ERROIA
Lore eta landareak
Frain auzoa • ☎ 63 78 26
LESACA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Behoko Plaza 8, LESACA

TXIRULA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •
Albistur, 39-K
☎ 627542 • LESACA

ANA
Janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 63 79 44
LESACA

ETXALAR

Zerainera bidaia egin zuten otsailaren 7an hemezortzi herritarrek

Gipuzkoako herri horretako esperientzia berezia ikustera

PELLO APEZETXEA

Berrehun eta berrogei bizilaguneko herri horretan, herria ez desagertzeko, mantendu eta indartzeko baizik, bertako produktuak, bertako historia eta berezitasunak zaindu eta bizibide bihurtzen ari dira, irabazbideak eta lanpostuak sortzen, eta herriko zerbitzuak hobetzen. Hain herri tikiari hori nola egiten ahal den eta, egindakoa ikusi eta nola egin den esplikazioak jaso dituzte, otsailaren 7an, hemezortzi etxalartarrek. Esperientzia hori gurean baliagarria izan daitekeen aztertzea gelditzen da orain.

Mendiko enpresa batzuekin kexu da Udala

Subasta egiterakoan, zurak eraman ondoren bideak moldatzeko baldintza gaineratzen zaie oihan-lote hartzaileei, baina ez dute beti betetzen. Iaz Otanegin oihan-lotea atera zue-nari ere bere kexa ager-



Zerainera otsailaren 7an joan zirenak

tu dio Udalak, eta moldatzeko eskatu berriz ere. Ez badu egiten, Udalak berak moldatuko du, enpresaren kontura. Gainera, kontutan edukiko du hurrengo enkantetarako.

113 milioi gastatu ditu udalak 1997an

Herriak 113 milioi pezeta gastatu zituen joan den urtean. Sarrerak, 115 milioi pezeta eta er-

di izan zirenez, bi milioi eta erdi gelditu dira urtearen azkenean.

Gastuen artean, obratan gastatua nabarmen-tzen ahal dugu: 61 milioi pezeta. Baserrietako bideak eta Herrikoetxe izana zaharberitzeak eraman dute diru gehiena. Herriko zenbait karrrika eta bazter moldatzeak, gainerakoa. Andreamaritako Bestek eta Usategietako Igan-

deak ia hiru milioiko gastua suposatu dute.

Sarreretan, 28 milioi dira kanpotik etorriak, Nafarroako Gobernuak, Cederna-Garalur eta INEM-engan diki. Herrian bertan bildutako aipagarrienak honako hauek ditugu: Kontribuzioarena, 5.700.000 pta; autoen zerga, 4.000.000 pta; Usategietako uso eta tortoilaren ehiza pos-

tuak, 5.500.000 pta; oihan-loteak, 6.200.000 pezeta.

Aintzin-erretiratuak bazkarria

Hondarreko urteetan Lesakako lantegitik erretiratu direnen artean, aunitz hiruetan hogeita bortz urte betegabea da, berrogeita hamabortzera ere ailegatzeko ez zena zenbait. Otsailaren 13an bazkaltzera bildu ziren, Etxalarko erretegiak, Bortzirietako hiruetan hogeita hamar aintzin-erretiratu. Lantegian elkarrekin bizitutako istorioak gogoratzeko aukera izan zuten, giro ederrean mahaiaren inguruan.

Gastienerako Ostatuak berriz irekiko da

Gastienea etxean kokatua dagoen 'Salvadora' Ostatuak, berriz ere atek irekiko ditu. Heldu den udaberri aldera izanen da hori, eta, oraingoan, Izargiko Pakita Altzugurenen eskutik.

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

koxkonta

SAGARDOTEGIA ZABALIK

Paregabeko idi-txuletak

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

kixkur

Ileapaindegia

Tel: 63 74 29

Bittiriako Plaza, 3 behea

LESAKA

KATTU

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

☎ 627573 • LESAKA

IGANTZI



Otsailaren 5ean egin zuten zuhaitz landaketa eskolakoek. Ondoko argazkian Iñigo eta Garikoitz, azken urteotako iñauteen animatzaileak



Argazkiak: Oskar

bildutakoek Fraingo bide inguruan landatu beharreko 50 haritzak beharrela paratu zituzten.

Iñauteak joan dira

Urtetik urtera indartzen ari direla ematen du. Aurtengoan izugarritzko partehartzea izan da mozorroetan, 45 gazte ibili baitira etxez etxe ortziral eta larunbatez. Hainbertze gauza politen artean, hiru azpimarratzeko: Iñigo eta Garikoitzek aspaldiko urtetan mozorroetan paratzen duten giroa, asteazkenean eskolan prestatutako mozorro ederrak eta azken urteotako iñauteetako ilunabarretan 7-8 lagunek antolatzen duten antzerkia.

Otsailaren 28rako deitu da Biltokiko Batzar Nagusia

Mus eta partxis txapelketen finalak, berriz, hurrengo larunbatean

OSKAR TXOPERENA

Joan den urteko gai beretsuak eztabaidatzeko bilduko dira Biltoki elkarteko bazkideak heldu den larunbatean. Izan ere, bada Juntari aspaldiko urtetan lan handia ematen ari zaion korapilo pare bat, oraingoa ere batzarraren zati-

rik mamitsuena hartuko duena seguraski. Hauek dira gaiak: Urteko kontuak eta ekintzak; bazkideen alta eta baja; eskolako jantokia; Biltoki ttiki; eskaera eta galderak eta Juntako zenbait partaideren aldaketa (lehendakaria eta 6 bokal). Ez hutsegiteko moduko gaiak.

Hurrengo larunbatean, martxoak 7, mus eta partxis txapelketen erdifinalak eta finala jokatuko dira. Batzuk dagoeneko bertan jokatzeo aukera guziak galdu izanen dituzte, baina, ondotik urtero egingen den afarian parte hartzeo aukera ez die inork kenduko

Zuhaitz landaketa

Bertze zenbait lekutan maiz ikusten dugun ekintza aurreneko aldiz antolatu da Igantzin. Otsailaren 5eko arratsalderako zeuden deituak gurasoak, haur eta irakasleekin batera mendian zuhaitzak paratzeko eta ez zuten hutsegintzen. Bertara hur-

Arkupeko herriko besta

Igantzioko bazkideek bere besta egin zuten otsailaren 10ean. Urtero bezala, meza entzutera bildu ziren eta ondotik, 55 lagunek Kontxita Herriko-etxeok prestaturako bazkari goxoa dastatzeko aukera izan zuten. Modestoren dantzaldiak eman zion segida eta akabila bestari.

IRU BIDE
ERRETEGINA

Tfnoa: 637127
LESAKA

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZATUN S.L.

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzioko Bentak • ☎ 627572 • Faxe: 637313

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

ALABO OSTRAROA

LESAKA

BORTZIRI UNSION ANIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • **LESAKA**
Tel eta Faxe: (948) 63 72 66

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 63 74 11 • Faxe: 63 73 13

ARANTZA

Giro eta eguraldi ederra izan dugu aurtengo Iñauterietan

Sagardotegira joateko autobusa antolatu du Gazte Asanbladak

ELIXABET ETA GARBINE

Ortzegunarekin hasi eta igandea bitartean, eguraldia lagun genuela giro ederra izan zen herrian iñauterietan.

Ortzegun eta ortzirean moztorroak auzoz auzo ibili ziren, bazter guziak harrotuz. Emakumeen afarian ere saltsa ederra sortu zuten. Eskolara ere ailegatu zen iñauteria eta haur guziak moztorrotuak joan ziren. Larunbat arratsaldean, haurrek beraien moztorroak jarri eta iehiaketa batean parte hartu zuten, denen arteko onena aukeratzeko. Gau partean berriz, jende aunitz hurbildu zen herrira. Aurten, aspaldiko partez moztorro beltzak ere agertu ziren gauean eta herrian barna ibili ziren. Jendea goizaldera arte ibili zen karrikan eta ostatueta.



Eskolako neska-mutikoak azti jantziarekin moztorrotu ziren

Sagardotegira autobusa

Arantzako Gazte Asanbladak sagardotegira joateko autobusa antolatu du martxoaren 7rako. Joan nahi duen guztiak Zuzaiñean apuntatzen ahal da,

apuntatzeko orduan 1.000 pezeta utziz.

Alkatea libre

Espainiako Erregea Belateko tunelen inauguraziora zetorrela eta, Joxe Ramon Amoros alkateak, bertze bertz al-

katerekin batera errandakoak ez dira delitua Nafarroako Fiskaliaren ustez. Honela, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Delagazioak eskatutako diligentsia informatiboak ixtea erabaki du.

BORTZIRIAK

26 milioiko aurrekontua izanen du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Bortzrietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 26.031.000 pezetako sarrera-irteerak izanen ditu aurten, berriki behin betirakoz onartutako aurrekontuen arabera.

Diru-sarrerarik haundiena transferentzia arrunten bidez lortuko du Mankomunitateak, 21.861.000 pezeta. Tasen bitartez, 1.100.000 pezeta eskuratuko ditu.

Gastuei dagokienean, langileen soldata joanen da kopururik haundiena, 20.208.000 pezeta. Ondasunak eta zerbitzuak erosten 1.723.000 pezeta gastatuko dira, transferentzia arruntetan 300.000 pezeta eta inbertsioetan milioi erdi baino gehixeago.



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Artzinaleak
Anjelak
Oma antzinak
Leibak
Areak
Aksak
Pileak

Taximiak
Erlazak
Moldurak
Zokaloak
Hilatriak
Marrakak

Mugulak
Zabaitzak

Mizoa
Tupatua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

ttipi-ttapa internet

<http://www.oncomix.es/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi@oncomix.es

**ALBERGEA
JATETXEA**

ATERPE
ALBERGEA

634179
ARANTZA

XATURETXEA

JATETXEA

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 637503 • LESAKA

INAXIO JANARIDENDA

Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak

Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Sunbillako Antzakaitz Taldea Asteburu Kulturala prestatzen ari da

Martxoaren 6, 7 eta 8an burutuko da

JAIONE ETA ALBA

Oraindik gauza guztiak zehaztu gabe dauden arren, Sunbillako Antzakaitz Kultur Taldeak antolatuta duen Asteburu Kulturala jaanik martxan dago. Adin guzietako jendeak parte har dezan ekin-tza desberdinak egiten saiatu da taldea, Ulibeltzak elkartearen laguntzarekin.

Aipatu behar hemendik aurrera bilerak ere Ulibeltzak elkartearen bertan egingen direla. Oraingoz prestatutako egitaraua hau da: Martxoaren 6an, ortzirala, arratseko 5etan gaztetoendako txokolata eta bideo emanaldia izanen da. Gaueko 9etan herriko gazteentzat afari-berendua. Gau guzian besta eta goizaldera baratxuri zopa banatuko da.



Haurrendako txokolata banatuko da Kultur Asteburuaren barnean

Artxiboa

Larunbatean, martxoak 7, artisautza ikastaroa herrian eman dutenen erakusketa zabalik egonen da egun guzian Ulibeltzak elkartearen. Arratsaldean, haurrek eskainitako antzezlanak eta eskolan egindako idazlanen sari banaketa. Gauean

txiste afaria eta ondoren Jalisco eta bere taldearen emankizuna izanen da.

Igandean, martxoak 8, artisau lan erakusketa. Goizean mendi bizikleta ibilaldia burutuko da eta arratsaldean nafar jotak aditzeko aukera izanen da.

Lotzabiango bidea moldatzea Hirurteko Planean

Nafarroako Gobernuak 20.348.567 pezetan emanen ditio Beintza-Labaiengo Udalarari Lotzabiango bidea moldatzeko. Lanaren aurrekontua 29.320702 pezetakoa da.

flash

Udal zergak

Aurten neurri hauen arabera ordaindu beharko dira Sunbillan: Hiri Ondasunen Zerga, %0,4; landa eta larreak, %0,7 eta eraikuntza, instalazio eta obren gainekoa, %3. Lur-eremuen balorearen igotzeraren gaineko zerga honelaxe banatuko da. Lehenbiziko bortsu urteak %2,2; hamar urte bitartean, %2,1 eta hogeitau urte arte, %2.

Oihan probetxamenduak Eratsunen

Arbea inguruko herri lurretan 2.173 zuhaitz (gaztaina eta alertzea) aprobetxatzeko baimena eman du Ingurugiro Sailak. Zuhaitz hauek 1.230 m³ zur ematen dute eta 7.855.944 pezetakoa da hasierako prezioa. Eratsungo udalak enkantean ateratzen duenaren %20akin Mandategi ingurua garbitu beharko du udan.

ttipi-ttapa Internet
<http://www.oncomix.es/ttipi-ttapa>
 E-mail: ttipi@oncomix.es

**ZURE EZKONTZA EGUNA
 MUSIKAREKIN ALAITU NAHI BADUZU
 HEMEN GAUDE ZURI ALAITZEKO**
Jalisco Band
 Tel: 450590 Jalisco Tel: 450240 Juan Carlos

AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
 Tfnoa: 450028 • **DONEZTEBE**


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
 451 541
 Faxa: 450 334
DONEZTEBE

Baztanen...

 LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
 Hilaketa • Hilaketa • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...
 Etan Iruñean...

IRACHE TANATORIOA
 Iratxe Monastegia, 60
 Tfnoa: 26 09 54
 Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 58 09 71 • **ARIZKUN**
 Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
 Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

DONEZTEBE

362 etxebizitza eraikiko dira Udal Plan berriaren arabera

Nafarroako Gobernuak Foru Agindu baten bidez onartu du

TXEMA ALDABE

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak behin betirako onartu du Doneztebeko Udal Plana. Foru Agindu baten bidez. Plan honen arabera, 362 etxebizitza egingen dira, horietatik 243 pisuak izanen dira eta gainerako 119ak familia bakarreko etxebizitzak. Blokeak normalean behe solairua eta bertze hiru izanen dute eta famili bakarreko etxeak, berriez, bakarka eginak edo bata bertzeari itxekiak.

ALDE ZAHARRA ZAINDU

Etxebizitzak antolatzarako ardatz nagusia Alde Zaharra zaintzea izanen omen da. Halere, plan berria martxan jartzeko zenbait aldaketa sartu beharko ditu Doneztebeko Udalak. Bertzeak bertze, 1982an Alde Zaharra interes historiko-artistikoa duen multzoa bezala izendatu zuten eta hori kontuan hartu beharko du idatzi berriak.



Sagardotegi-afaria La Union Kasinoan

La Union Kasinoan sagardotegi-afaria egingen dute martxoaren 7an, larunbatean. Horretarako, sagardoz betetako kupela eta guzi ekarriko dute. Afarira joateko epea ideki eta denbora guttira 50 lekuak bete ziren.

Eraberean, borden erabilera berriei buruzko araudia xehekiago ematea gomendatu dio Nafarroako Gobernuak udalari.

Larunbat gaueko gertaerek kezka sortu dute

Azken bolada honetan eta, batez ere, larunbat gauetan izanda-

ko gertaerak direla eta, herriko ondareak nola norberarenak babesteko asmoz bandoa zabaldu du Doneztebeko Udalak herrian barna.

Kristalak eta lorontziak hautsi, bide seinaleak okertu, kotxeiko antenak eta kristalak garbitzekoak puskatu, zabor edukinontziak irauliak eta zenbaitzu-

tan errekarra botariak... dira egiten diren astakeriak. Hori dela eta, Udalak laguntza eta errespetoa eskatu die herritar eta kanpotik etortzen diren guziei. Guzi honekin, gertaerak jarraitzen badute Udalak jakinarazi du neurri berriak hartuko dituela, herritarren ondasunak errespetoz zaintzeko.

flash

Bake epaile
kargua bete nagi duenak martxoaren 2a bitarteko epea izanen du bere eskaera udal bulegoetan aurkezteko.

Euskaraokea
grabatu zen otsailaren 18an Bear-Zana frontoian eta jende aunitz hurbildu zen saioa ikustera. Grabatutakoa martxoaren 9tik 13ra botako dute ETBn.

Zinemaldia
akitu da oraingoz eta iritsi da balorazioa egiteko ordua. Aurtun pelikula guttiago bota dira eta gainera, hamabortzean behin. Jende gehiago hurbildu dela dirudi, dena den, udalak jakinaraziko du heldu den urtean jarraitzeko merezi duen.

Ebasketak
ugaritzen ari direla nonahi gauza jakina da. Joan den astean, herriko harategi batean suertatu zen bat egun argiz. Dirua hartu eta bazoalarik harakina ohartu eta bertze lagun baten laguntzaz ebatsitakoa berreskuratzea lortu zuten, hori bai, bere gibeletik karrietan barna ibili ondokik.

SANTAMARIA
Jatetxea
Especialitate euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezitia karriko • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ETXANDI
TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

MALERREKA



Titi Bar taldeak orain arteko partidu guziak irabazi dituzte, sei partidutan 47 gol sartu eta 19 jasoz. Lehenbizikoak izan dira fase honetan eta faboritoak txapelketaren izateko. Zutik, ezker-eskuin, Joxe Irigoien, Lentejo, Jabalera eta Aitor Zugarramurdi 'Xako'. Totorika, Patxiku Ganboa, Irazoki 'Tatxenko' eta Larunbe 'Xurdo'.

Argazkiak: ZALDUA

Futbito txapelketaren lehen fasea akitu da

Titi Bar taldeak partidu guziak irabazi ditu

TXEMA ALDABE

Dagoeneko akitu da Baztan-Bidasoako VI. futbito txapelketaren lehen fasea. Hasieran izena emandako hamahiru taldeetatik hiru kanpoan gelditu dira. Beheitiko argazkietan ageri diren 12 Ostatua eta Elgorriaga eta

Basakaitz (Zubieta eta Saldiasoko jokalariekin) izan dira, hain zuzen, kanporatuak.

Hurrengo partiduak igande honetan, martxoak 1, jokatuko dira. Doneztebeko frontoian, arratsaldeko 6etan Garardi taldeak (Ituren eta Zubietakoak) BKZ taldearen kontra jokatu du. 7etan, berriz, Elizondoko Ajax Pinok Sunbilla-Caja Rural izan du aitzinean. Lauak, martxoaren 8an jokatuko diren final laurdenetarako bi txartelen bila arituko dira. Dagoeneko final laurdenetarako sailkatuak daude Kaifas Club (Doneztebe), Xanpale (Legasa), Basaburua (Berroeta, Aniz, Ziga), Titi Bar (Doneztebe), Arraioz eta Narbarte taldeak. Finalerdiak martxoaren 15ean jokatu dira eta finala San Jose egunean.



12 Ostatua taldea. Zutik, ezker-eskuin: Juan Telletxea, Javier del Castillo, Javier Juanotena, Fernando Ruiz 'Katxo' eta Santi Belarra. Totorika: Xantiago Larraza 'Xixo', Jokin Apezetxea 'Ghandi', Patxiku Irigoien eta Antton Martinez 'Koyote'.



Elgorriaga taldeko jokalaria. Zutik, ezker-eskuin: Kiko Sukilbide, Andoni Eizagirre 'Armaldo' eta Joxean Mariezkurrena. Totorika: Imanol Ibarra, Xabier Irisarri eta Eloy Jerez. ZALDUA



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA
Julian Izura Nuin

Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2.ezk • DONEZTEBE

DONEZTEBEn.

Amezti ondoan, Donamariako bidean Babes Ofizialeko Etxebizitzak (V.P.O.)
- Azken pisua (89,79 m²), bere trastero (13,4 m²) eta garajearekin (14,78 m²)
* V.P.O. : Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin
- Lokal Komertzialak
- Garajeak
(1998ko abenduan emateko)

ITURENen.

Lasaga auzoan
- Pisuak (94,03 m²) bere trasteroarekin.
- Bajerak
(1998ko urrian emateko)

MALERREKA

Errepidearen egoera negargarria dela-eta kezka sortu da Ezkurran

Haizeak ere hainbat kalte sortu ditu azken asteotan

REYES GOÑI

Doneztebe eta Leitza lotzen dituen errepidearen egoera «negargarria» dela eta euren kezka azaldu dute azken aldian Ezkurra bizilagunek. Errepidea zuloz beteta dago, herriaren inguruan, batez ere, eta bide bazterretan autoek galdutako gauzak –gurpiletako *tapacubos*-ak, etab...– nonahi topatzen ahal dira.

Errepidearen egoera lotsagarria salatzen ekitaldiren bat egiteko asmoa azaldu dute ezkurrarrek, baina oraindik ez da deustan gauzatu.

Haizeak kalteak sortu ditu

Ezkurra haize lekua dela jakina da, baina az-



Haizeak kalteak sortu ditu Ezkurra inguruan

Artxiboa

ken asteetako haize boladek kalte haundiak sortu dituzte. Zuhaitzetan eta herriko etxeetako teilatuetan eta nabaritu da, batez ere, haizearen indarra.

Jubilatuak bazkaria izan zuten igandean

Igande honetan, otsailak 22, Arkupeak jubilatuen elkarteak kideek beraien urteroko baz-

karia izan dute Barranka jatetxean. Aurretik meza izan zuten eta ondotik, beti bezala, dantzaldia. Hogeita hamar lagun inguru bildu ziren festa honetan.

Iazko abenduan baino 26 langabetu gehiago

749 lagunek izena emana dute Doneztebeko INEMen

TTIPI-TTAPA

Hilbeltzaren bukaeran 749 lagunek izena emana zuten Doneztebeko INEMeko bulegoan. Iazko abenduan 723 zirela kontuan hartuz, eskualdean 26 langabetu gehiago dagoela erraten ahal da.


Kopuru honetatik 155 lagun hogeita bost urte baino gazteagoak dira (72 gizonezko eta 83 emakume) eta gainerako 594 hogeita

bortz urtez goitikoak (284 gizonezko eta 310 emakume). Sexuaren arabera, beraz, emakume gehiago dira langabetuz daudenak (%52,46).

Lan sektoreen arabera, zerbitzuak dira langabetu gehien dituen sektorea (372 lagun, hau da langabetuen % 49,6). Ondotik industria etorriko litzateke (213 langabetu, %28,43) eta gero, eraikuntza (64 langabetu, %8,54). Neka-

zaritza eta abelzaintza da langabetu guttien duen lan arloa. 26 bertzerik ez (%3,47). Beraien lehen lana biltzen ari dira Donezteben izena emandako gainerako 79 lagunak (%10,54).

Hilbeltzean 27 kontratu egin ziren INEMen bitartez; lagun bat enplegua bultzatzeko neurrietara bildu zen eta bertze lau lan orokorretan aritzeko hartu zituzten.



Zerbitzu arlokoak dira langabetuen erdiak

flash

Beintza Labaiengo

Herriko Etxeak bake-epailea eta bere ordezkioa aukeratzeko deialdia zabaldu du. Proposamenak ortzirala, otsailak 27, baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.


Bi apartamentu errentan emanen dira Ezkurran

Ezkurra Herriko Etxeko lehen pisuko bi apartamentu errentan emanen ditu Udalak bi urterako, enkantearen bidez. Enkantea larunbat honetan burutu da eta hasierako prezioa hileko 10.000 pezetakoa zen.

Donamariako mus txapelketa

Otsailaren 14an hasi zen Donamariako Ostatuan aurtengo mus txapelketa. Hogei bikote inguruk eman dute izena.

GOIZUETA



Mitxel Tomasena, Umore Ona Elkartearen presidente berria

Mitxel Tomasena, Jose Ignacio Alsua eta Jose Antonio Lujanbiok beteko dituzte Umore Ona elkarteko komisioan gelditu diren hutsuneak otsailaren 14ko asanbladan bildutako bazkideek emandako botoen arabera. Lehenengoa presidentea izanen da, bigarrena idazkaria eta azkenekoa, bokala. Zuzendaritzaren erdia berritu behar denez urtero -hamar kideetik bost, alegia- orain barrenean dauden zortzien artean hautatuko dituzte falta diren biak, hauek bokalen lana egingen dutelarik.

Gurasoentzat ikastaroa herriko eskoletan

Heldu den urtean, bestalde, herriko ur-zikinen hodiak berrituko dira

ESTEBAN AROZENA

Hamabi urtetik gorako seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako ikastaro bat burutzen ari da herriko eskoletan azken aste hauetan. Orain dela hilabete pare bat inkesta banatu zen etxeetan haur eta gaztetxoaren gurasoen kezka nagusiak zein diren jakin nahiean. Ia erantzun guzietan drogaren arazoa aipatzen zenez, gai hau izanen da martxoaren erdira arte astero emanen diren hitzaldien ardatza.

Harreman hobekoak izatea seme-alabekin eta eguneroko bizitzan hauek behar bezala hezitzea dira, besteak beste antolatzaileek jarri di-

tuzten helburuak. Guzti hau lortzeko, astelehenero biltzen dira, arratsaldeko 3etatik 5etara Altsasuko udaleko Gizarte Zerbitzuko sikologa batekin.

Esan behar da, eskolako orientatzaileak eta irakasle eta guraso batzuen ekimen honek erantzun ona jaso duela, hamabost lagun inguru biltzen baitira astero astero. Honen ondorioz, gurasoen gogoia ikusirik, alegia, hamabi urte arteko haurren arazoei buruzko beste ikastaro bat egingen da seguraski oraingo hau bukatzen denean.

Pandero ikastaroa

Aralar, Udal Musika Eskolak martxotik ekai-

na bitarte iraungo duen pandero ikastaroa antolatatu du. Musika ikasketarik ez dauzkitenek ere atea zabalik edukiko omen dituzte ikastaro honetarako.

Saneamendu sarea berrituko da

Hasiera batean, Nafarroako Gobernuak Hirurteko Azpiegitura Planean ordezkio lana bezala izendatu zuen herriko saneamendu sarearen berritzea. Orain, ordea, behin betiko Plana onartu denean, lan hori egitea erabaki du Iruñetik. Modu honetan, 1999. urtean 16.739.000 pezeta inbertituko dira ur zikinen hodiak berritzeko lanean.

ARESO

Segurtasun eta Osasun plana martxan jarri da

Lan istripuak ez gertatzea nahi du Udalak

JUANA M^a SAIZAR

Osasun eta Segurtasun plana martxan jarri du udalak, azken aldi honetan hain ugari suertatzen diren lan istripuak ez gertatzeko helburuarekin. Hemendik

aurrera edozein klaseko obrak egin baino lehen, proiektua azaldu beharko da Udaletxean, derrigorrez, baimena eman ahal izateko. Gainerantz, Udala egin beharko litzateke istripuen arduradun.



Auzolana egin nahi ez duenak eguneko 4.442 pezeta ordaindu beharko du

Zuhaitzak sartzeko dirulaguntzak

Dirulaguntzak daude zuhaitzak landatzeko eta oihanberritzeko. Hektarea bat baino gehiagoko lur eremua baldin bada txostena aurkeztu beharko da

martxoaren 3a baino lehen. Eredu txikiagoetan zer gisako plantak sartu behar diren eta mantenimendua azaldu beharko dira.

Auzolana

Auzolanaren egune-

roko kostua 4.442 pezetakoa izango da hemendik aurrera.

Bake epaile...

izan nahi duenak martxoaren 2a baino lehen aurkeztu behar du eskaria udal bulegoan.

Nafarroako bertsolari txapelketaren kanporaketa saio bat herrian egingen da

Martxoaren 15ean, arratsaldeko 5etatik aurrera zinean

JOSEBA AZPIROZ

Martxoaren 15ean, arratsaldeko 5etan, zine aretoan ospatuko den saioan Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena, Fermin Mihura, Iñigo Olaetxea, Laka eta Oskar Estanga bertsolariak arituko dira. Lan hau izanen dute: ofizioa zortziko haundian, 3 bertso; bakarka: 2 puntu eta hamarrekotxikian azken oina emanda; ofizioa zortziko txikian 3 bertso eta kartzelako lanean: bukaera emanda zortziko handian bertsoa eta gai bati 2 bertso.

Udal langilea auzitegira deitua

Estatuak, intsumisioren aurka daraman jarduera itsuan, beste pauso bat eman berri du. Udal langile bati, Lurdes Gogorzari hain zuzen, Nafarroako Auzitegi Gorenaren aurrean hilaren 24an, abokatuaz lagundurik agertzeko agindu zioten. Arrazoia zera da: Defentsa Ministeritzak karta ziurtatua bidali zion Udalari, 1997ko aliamendua egiteko aginduz, baina Udalak, 1992ko urrian hartutako erabakiari jarraituz, ez zuen agindua bete. Posta ziurtatua jasotzen denean, posta-



riak Nortasun Agiriaren zenbakia jarri eta sinatuarazten du eta karta hori Lurdesek jaso zuelako izan da bera zitatua.

Arkupeak elkartearen festa

Otsailaren 15ean, Leitza eta Aresoko Arkupeak elkarteak ehun bat bazkidek urteroko festa ospatu zuten. Leitzan 170 bazkide dira eta Areson, berriz, 13. Mezarekin eman zioten hasera ospakizunari. Elkarrekin egindako bazkariaren ondoren mus txapelke-

tako irabazleei dominak eman zizkieten. Pakita Aierdi eta Ramoni Leizaolak irabazi zieten finalean Jose Luis Mugika eta Mari Luz Llorcari.

Euskara teknikaria hartzeko frogak gaur hasiko dira

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak Euskara Teknikaria kontratatzeke egingen dituen frogak gaur, otsailak 26, goizeko 9etan, Herri Liburutegian hasiko dira. 17 lagun onartu dira frogak egiten hasteko.

Maxurrenea euskaltegi

Euskara ikasleen lehengo taldea egona da Maxurrenean. 32 ikasle eta 6 irakasle egon ziren otsailaren 16tik 21era eta beste aste bateko ikastaroa eskatuko dute, hainbeste gustatu baitzaie herria. Hezkuntza Departamentuak antolatutako ikastaroetan, maisu, maestra eta institutuetako irakasleak parte hartzen dute, ikasketak euskaraz emateko gaitasuna lortzeko edo, dutenak, hobetzeko asmoz. Hurrengo taldea maiatzean etorriko da.

UEMaren aurrekontua

Leitzako alkatea lehendakari bezala duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) urteko aurrekontua onartu zuen. Diru-sarrerak 17.630.000 pezetakoak izanen dira eta gastuak, berriz, 17.541.555 pezeta.

Futbol zelai...

egiteko lurren hartzea, expropiazioa gauzatzeko nahitaezkoa, urgentziazkoa deklaratu du Nafarroako Gobernuak. Foru Agindu baten bitartez.

flash

- ❖ **Mendi martxak**
Aurrera Kirol Elkarrekin zenbait mendi martxa antolatu ditu urte honetarako. Martxoaren lehenegina dena, Amezketabaraiabar, bigarrena izanen da (Autobusa 500 pezeta).
- ❖ **Oinarrizko Gizarte Zerbitzua**
Leitza-Goizuetako Areso-Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, lau langile kontratatzeke deialdia zabaldu zuen. Aukeraketarako lehendabiziko frogak, martxoaren 18an, goizeko 9etan, Leitzako Eskolan egingen da eta izena emandakoetatik, epaimahaiak 51 lagun onartu ditu frogak egiteko.
- ❖ **Literatur saria**
Mikel Ilarregik bigarren saria (20.000 pezeta eta oroigarria) eskuratu du Bermeoko Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako olerki lehiaketan. Hogei bat lan aurkeztu ziren lehiaketara.
- ❖ **Zinema**
Pelikula hauek izanen ditugu ikusgai. Otsailaren 27 eta martxoaren lehen, «Abre los ojos», Martxoaren lehen, «Super Kid», Martxoaren 6 eta 8an, «Martin (Hache)» eta martxoaren 8an, «Oihaneko liburua».

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzeak pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

Basa Kabi

Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

Elizatzte

ERLOJUTEGI
BITXITEGIA

Nafarrentzat
prezio bereziak

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

BAZTAN

Gazteak eta helduak dira karrikan euskara gutien erabiltzen dutenak

Orokorrean, halere, orain dela lau urte baino gehiago egiten da

TTIPI-TTAPA

Baztango hamar herrian joan den urteko azaroan egindako karrika neurketaren arabera, gazteak dira euskara gutien erabiltzen dutenak. Paula Kasares, Euskara Zerbitzuko teknikariaren erranetan, «zenbaki eta portzentai hotzak alde batera utzita, zenbait ondorio eta joera ateratu ditugu». Honela, orain dela lau urte EKBk egindako neurketarekin konparatuz, orokorrean euskara gehiago egiten da karrikan. Baina, batez ere, haurrak eta adinekoak dira euskara erabiltzen dutenak. «Gizarte talde aktiboek, gazte eta helduek alegia, arras guti egiten dute euskaraz. Gizarte mailan aginte pisu guti dutenak edo produktiboak ez direnak dira euskara erabiltzen dutenak. Beraz errandaiteke euskara marginalizazio egoerandagoela» Paula Kasaresen ustez.

Inguruko eskualdeko datuekin alderatuz, herri bakoitzak dinamika desberdina duela ikusi dute Euskara Zerbitzuan. «Doneztebe eta Elizondok, adibidez, ia emaitza berdinak dituzte orokorrean, baina Elizondok euskara gehien



Erratzuko emakumeen bazkaria

Ohiturari atxikiz, joan den urtarrilaren 17an, San Anton egunean, Erratzuko emakume talde honek bazkari eder bat egin zuen. Guztira 66 emakume bildu ziren eta, erran beharrik ez da, sekulako giroan bukatu zuten eguna.

Argazkia: Xabier Ospitalek utzia

egiten dutenak adinekoak diren bitartean, Donezteben xaharrak dira gutien egiten dutenak. Irurita eta Etxalar, berriz, ia biztanle kopuru bera izanik, hizkuntza joera arras desberdinak dituzte».

Azterketa Baztango herri guzietan egiteko asmoa bazuten ere, azkenean neurketa egiteko jenderik ez zuten lortu herri txikienetan -Azpilkueta, Lekaroz...-. «Gainerako herri txikietan bildu ditugun datu beretsuak izanen dira horietan ere».

Elizondoko elizak 2.606.926 pezetako irabaziaz izan zituen iaz

Elizondoko Santia go-elizak 9.441.650 pezetako diru-sarrerak eta 6.834.724 pezetako gastuak izan zituen, beraz, 2.606.926 pezetako irabaziaz izan zituen. Aitzinetik 1.611.504 pezetako irabaziaz zuenez, guztira 4.218.433 pezeta zituen kutxan urte hasieran.

Diru sarrera haundienak mezetan saskia pasatuz lortu dituzte (5.294.750 pezeta).

Bertzelako diru-emariak 1.240.000 pezetakoak izan dira. Ez-ohiko diru-bilketen bidez (Domund eta horrelakoak) 2.481.900 pezeta bildu dute, nahiz eta kopuru hau oso-osorik eman egiten den.

Gasturik haundiena, apezten soldatak ordaintzeko Gotzaitegiari eman zitzaizkion 2 milioiak izan ziren. Moldatze lanak, argia, eta honelakoetan milioi bat inguru joan zen.

flash

❖ **Zigako plazan** harrizko mahaia jarri dute. Hau, orain arte jarriko duten hirugarrena da, lehen Auzkue eta Elizagibelen jarri baitzituzten horrelakoak.

❖ **Zigako pilota plazaren** zola eta paretak moldatzeko lanak Mixelena eraikuntza enpresak eginen ditu 3.979.406 pezetaren truke. Nafarroako Kirol eta Gazteraren Institutuak 1.300.000 pezetako dirulaguntza eman du lan hau egiteko. Maiatzaren 31 baino lehen bukatu beharko da Aleman Irungarai arkitektoak zuzenduko duen obra hau.

❖ **Almandozko maiordomuak** Raket Irureta eta Ester Sanzberro izanen dira aurtengo Almandozko maiordomuak. Herriko bestak berriz, ekainaren 11n ospatuko dituzte.

❖ **Almandozen** elkarte bat egiteko asmotan dabilta. Momentuz, lokal biltzen eta gauzak estudiatzen dabilta.

❖ **Erratzuko** Etxelebertzeko Txokoak urteko batzarra burutu zuen otsailaren 14an. Iazko balantzea egin, aurtengo aurrekontua begiratu eta eta zuzendaritza batzordearen erdia berri zuten.

ARROPA DENDA

FANTXIKE

JATIME IRRUTIA 24
TFNO. 549312
ELIZONDO

Gazteendako era guzietako arropa

Lanerako arropa

OPS Ingenieros S.L.

- Topografi lanak: Lur neurketak, balorazioak.
- Nekazal proiektuak: Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

La Asturiana

ostatu • jatetxea

Tfnoa: 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

BAZTAN

Baionako Antzokira 'kultur ateraldia' egingen da martxoaren 6an

'Els Comediants' antzerki taldearen emanaldia ikustera

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Arizkunenea Kultur Etxeak antolatuta, kultur ateraldia egingen da martxoaren 6an, ortziralara, Baionako Antzokira. 'Els Comediants' talde famatuaren 25. urteurrena ospatuz presatutako *Anthologia* ikusiko dute, gaueko 9etatik aitzinera. Autobusa arratseko 7,15etan abiatuko da Elizondoko plazatik eta emanaldiaren ondotik, gaueko 11etan Elizondoruntz itzuliko da. Bidaiaren prezioa 2.750 pezetakoa izanen da, autobusa eta antzokirako sarrera barne dituela. Ikusle kopuru mugatua izanen dela kontuan hartuz, izena lehenbailehen eman behar da Kultur Etxean.



Ikastolakoak ere igandero mendira

Baztan Ikastolako mendigoizaleak hilteltzan hasi zuten aurtengo denboraldia, Elizondo-Bailei ibilaldia eginez. Otsailaren 15ean Zuhaitz Eguna ospatu zuten eta joan den igandean, Belatetik Txarutara joan ziren oinez. Martxoaren lehenan elurretara joateko asmoa dute eta 8an, berriz, Arizkun-Xorroxin ibilbidea burutuko dute. Irteera guziki ikastolako parketik izaten dira, goizeko 9etan.

Zenbait lan egingen dira Hirurteko Planaren barnean

Hasiera batean, Nafarroako Gobernuak ordezkioak bezala izendatu zituen zenbait lan egiteko erabakia hartu du orain.

Honela, Azkarateko ur-depositoa egin eta

ura hartzeko eta bideratzeko lanak 15 milioi pezetako inbertsioa izanen dute 1999. urtean.

Bertzalde, hainbat herrietako argiak moldatzeko 38.760.000 pezetako inbertsioa egi-

nen da urte berean. Zehazki, Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Elbete, Lekaroz, Almandoz, Irurita (Sorreatik Santxoteneara) eta Oronozko Zozai auzoetako argiak berrituko dira.

Iratxeren balantzea

Iratxe Kontsumitzaille elkarteak iazko balantzea egin du, elkarlarte bezala sendotu dela adieraziz. Etxebizitza alokairuak eta urrunetik egindako erosketek buruz izan dira hartu dituzten kexu gehienak.

flash

❖ **Laxoa Elkarteak** urteko batzarra egin zuen otsailaren 14an Irurritako Oñezture elkartearen. Aurtengo denboraldia prestatu zuten bertan.

❖ **Lekaroz eta Gartzaingo** elizetako organoak konpontzeko asmoan dabilta. Lekarozkoa moldatzeko aurrekontua milioi terdikoa da. Gartzaingoa moldatzea milioi bat gostako da.

❖ **Fede gogoeta** Diozesiko arduraduna eta Elizondoko katekistekin batera Elizondo, Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Leitzako hirurogei gazte, 14 eta 18 urte artekoak, bildu ziren Oharrizen, 'Zeregin nahi duzu zure bizitzarekin' lelopean.

❖ **Suteak nonahi** Aritzakunen 15 mendi Hektarea erre dira, otsailaren 14 eta 15a bitartean. Suhiltzaileak etorri ziren, helikoptero eta guzi. 5 Ha. sasi, 5 Ha. izeki eta gainerakoa haritza izan zen erre zena. 25 ordu eman zituzten sutea itzaltzen. Bertze hainbat lekutan ere izan dira suteak asteotan.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDABERRIKO ARROPA

Trajeak, konjuntioak, kamisetak,
galtzak, jertseak...

KONPLEMENTOAK

Painueloak, gerrikoak, bitxikeriak...

ESKULANETARAKO MATERIALA

Okindegia

Jatetxea

Uxoa

Polig. Ind. Ordokj Tfno.: (948) 45 34 03 31713 ARIZKUN

Okindegian

• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

Jatetxean

• Menua eta karta (asteburuetan)

• Espezialitate parrilan erretako jakietan



Enkargatuz gero,
bildatsa ogi-labearen errea.
Goxo-goxoa!

EPAITEGIAK

Espainiako erregeari buruz sei alkatek egindako kritika ez da delitua

Belateko tunelak inauguratzera etorri zenean egin zuten idatzia

TTIPI-TTAPA

Espainiako Erregea Belate eta Almandozko tunelak inauguratzera zetorrela eta, Arantza, Donamaria, Etxalar, Ezkurra, Saldias eta Zubietako alkateek egindako adierazpenetan ez dago delitu aztarnarik, Nafarroako Fiskaliaren ustez. Honela, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Delagazioak eskatutako diligentsia informatiboak ixtea erabaki du.

Gogoratuko duzue, sei alkateek Erregearen bisitaldiaren kontrako idatzi bat karrikatu zuten. Bertan, Erregea, Espainiak Euskal Herriari egiten dion errepresioaren eta Euskal Herria bere buruaren jabe ez izatearen arduradun nagusitzat jotzeko, tunelak egiteko eta inauguratu ahal



Erregeari errandakoak «kritika politikoa» zela diote alkateek Arg: Goiko

izateko pausorik eman ez zuela zioten: «*merzi ez duen ospea eta meritoa eman diote heringo agintari nabarrieste*».

Idatzi berean, arazo historikoak gaundituko dituzten Belateko tunelak inaugurazio eguna

alaita dela onartu arren, «*inaugurazioan parte hartzerak erriko duten errege espainiarraren etortzeak guztiz iluntzen du ospakizuna*» uste zuten alkateek.

Idatzi honek, Erregeari irain egiten ziola uste zuten Gobernu

Delegazioak eta, honenbertzez, bi urte arteko gartzela zigorra ezartzen ahal zioten alkate bakoitzari. Halere, epailearen aitzinean beraien erranak berretsi zituzten eta idatzia «*kritika politikoa*» zela adierazi zuten.

Istripu berri bat Belatek beheiti

Josu INZARTE

Otsailaren 18an, eguerdi aldera istripu berri bat izan zen Belatek beheiti. Zozaiako bidegurutzearen inguruan. Juan Sancha 26 urteko gazteak Madrildik Bordelera zeraman kamioia, liburuxkez bete, freno edo galgarik gabe gelditu eta errepidetik atera zen. Gidaria eta ondoan zuen emaztea onik atera ziren istriputik.

Bien bitartean, istripu hauek, ahal den neurrian, ez gertatzeko zenbait lan egiten ari dira Oronozen. Argi-seinaleak, espaloioak eta paretak jartzen ari dira eta laister semaforoak ere jartzeko asmoa dute.

Kulturkari

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloia
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberean negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188



Bierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI


HERRIKO ETXeko EDANTEGIA

Michel eta Kattin Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA



• Hileta artea



KALITATEA eta ESPERIENTZIA

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Astearretik ortzirala Betatik aitzinerat Larunbata eta besta egunetan zabalik.

☎ 45 21 21 • LEKAROZ

SARA

Ele Bista egitasmooaren berri eman zen Herriko Etxean

Hunen antolakuntza Aldudarrak bideo elkarteari doakio

MIXEL ETA JACQUELINE

Otsailaren 6an Herriko Etxean Ele Bista egitasmooari buruzko bilkura iragan zen. Hunen antolakuntza Aldudarrak Bideo elkarteari doakio eta Christophe Ayez herritarra zen hunen bozeramailea. Elkarte honen helburua herri telebista baten sortzea da bideo kazeten

bitartez, funtsezko kanal dun telebista bat ezin baita oraino egin.

Elkarte hau 1995ean hasi zen lanean eta duela zombait hilabete Ele Bista 0 atera zuen. Bigarren urratsa 1. zenbakiaren gauzatzea da, ahal bezainbat jendeke parte hartu duelakoan, hurbileko telebistak bertako jendeen elkartasuna behar baitu.



Harakin berria herrian

Jean Pierre Arburua ezpeltarra

Azken hiru urte hauetan Ramon San Sebastianen eskuetan zen harakindegia, jabez aldatu da. Otsailaren 10az geroztik Jean Pierre Arburua ezpelta-

rra dugu harakin berria. Hunek bere emaztearekin hamar urtez Ezpeletako Etxemendi jatetxea atxiki du eta orain zorion guziak desiratzen dizkiegu.

Bertso saioa

Olhain elkarteak antolatu hemezortzigarren bertso saioa modu ezin hobean iragan zen otsailaren 15ean. Bertsozaleek eta bertsolariak deiarri erantzun ona eman diote eta ehun ta hogoi bat lagun elkartu dira Omordiako gelan, Andoni Egaña, Txomin Ezpona, Jean Louis Laka, Jon Maia, Pierre Mendiburu eta Jesus Mari Irazuren bertsoen aditzera. Gai-emaile lanak Mixel Itzainak bete zituen. Egia da horrelako ekitaldien preziatzeko parada guti dugula gure eskualdean eta poztan gara jendeak parte hartzen duelarik, aurtan bezala.

Argazkia: Christophe Ayez



ZUBIRIA
MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

EZKONTZAK

Pedro M^a Rekalde Irigoien eta **M^a Idoia Lazaro Urrutia**, Amaiur eta Iruñekoa, otsailaren 7an.

JAIOTZAK

Aizea Petrirena Rozas, Elgorriagakoa, urtarrilaren 29an.
Xuban Gastearena Irigoien, Ezkurra-koa, urtarrilaren 8an.
Miguel Sobrino Etulain, Arizkungoa, urtarrilaren 19an.
Ane Igoa Migeltorena, Berakoa, otsailaren 3an.
Maialen Urtxegi Albaladejo, Berakoa, otsailaren 3an.
Nerea Gortari Alkain, Irungoa, otsailaren 17an.

HERIOTZAK

Fortunata Pitillos Compes, Elizondon, otsailaren 5ean, 91 urte.
Garcia Baldanta Lopez, Elizondon, otsailaren 8an, 84 urte.
Matea Blanco Garcia, Elizondon, otsailaren 10ean, 100 urte.
Angel M^a Hualde Goizueta, Iruritakoa, otsailaren 11n, 76 urte.
Manuel Indurain Remon, Elizondon, otsailaren 15ean, 59 urte.
Jose Ozkoidi Lareki, Elizondon, otsailaren 16an, 88 urte.
Juan Bautista Navarro Apezetxea, Goizuetakoa, otsailaren 9an, 73 urte.
Jose Aranburu Arribillaga, Goizuetakoa, otsailaren 10ean, 74 urte.
Eusebia Rekondo Erbiti, Leitzakoa, otsailaren 10ean, 83 urte.
Graxi Soubelet Mendiburu, Urdazubikoa, urtarrilaren 17an, 64 urte.
Juan Galzagorri Goienetxe, Zugarramurdikoa, otsailaren 11n, 84 urte.
Marie Richer Durruty, Sarakoa, otsailaren 12an, 97 urte.
Joaquina Caballero Marzol, Aresokoa, otsailaren 11n, 86 urte.
Jose Gonzalez Ezpeleta, Arantzakoa, otsailaren 8an, 70 urte.
Dominica Elizalde Elizalde, Eratsungoa, otsailaren 12an.
Federiko Arburua Arribillaga, Etxalarkoa, otsailaren 14an, 77 urte.
Agustina Iparragirre Larralde, Etxalarkoa, otsailaren 17an, 94 urte.

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurttoa jaiotzea eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbitzarako produktuez betea, emango dizugu.

Ex aiantzi familiaren liburutxka!

IRUÑEKO KUTXA

ttipi-ttapa

Lesakako lizenzia eskuratzeko eskiaera aurkeztu du Xorroxinek



Bidali

TTIPI-TTAPA
herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
 Eskatu informazioa.

631188

RAFAELA MAIZ BEREAU

AMATXI: Aunitz maitatu gaituzu, zure ametsa gu denak ongi ikustea izan da beti;
 Ez gara inoiz atzenduko zurekin, gure bihotzean izanen zara betirako.

ZURE ILOBAK

ESKELAK URTEMUGAK ESKER ONAK

ttipi-ttapan

63 11 88



Rafaela MAIZ BEREAU

(Jose Alzuri Mitxelenaren alarguna)

1998ko hilbeltzaren 27an hil zen Arantzan, 83 urte zituela.

Hain momentu minberetan, laguntasuna, berotasuna eskeini diguzuen guziei, eskerrak aunitz.

BERE FAMILIA



Txapel berri bat jokoan

Elizondon burutuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala

Ez da hori izan, ordea, eskualdean egokitu den saio bakarra, Leitzak martxoaren 15ean bigarren kanporaketa hartuko du eta. Seina bertsolari lehiatuko dira eginen diren hiru kanporaketetan, eta Elizondoko finalerako zuzenean sailkatuko dira horien arteko hobereenak. Bigarrenak, berriz, Zuraiden eginen den finalaurrerako pasea jasoko dute, eta saio hortan zortzi bertsolari izanen direnez, kanporaketetan punturik

gehien lortu duten bostak izanen dituzte lagun. Hortik finale-ra pasatzeko pausua ez da horren zaila izanen, Zuraiden abestuko dutenetatik 3 bakarrik geldituko baitira kanpoan. Final handia Elizondoko pilotalekuan izanen da, apirilaren 5ean.

Joxe Urroz, Jean Pier Etxegoin, Mikel Bujanda, Jon Abril, Beñat Soule eta Patxi Larretxea izanen dira, bertalde, nor sailkatuko den eta nor ez erabakiko dutenak.

BURLATA

**Martxoaren 13an
22:00etan
Musika Eskolan**

Iñigo IBARRA
Estiñu FERNANDEZ
Jexux ARZALLUS
Joxema LEITZA
Manolo AROZENA
Nerea BRUÑO

LEITZA

**Martxoaren 15ean
17:00etan
Zine aretoan**

Bittor ELIZAGOIEN
Estiñu AROZENA
Fermin MIHURA
Iñigo OLAETXEA
LAKA
Oskar ESTANGA

LIZARRA

**Martxoaren 21ean
17:00etan
Kultur Etxean**

Ekintza LANDA
Ortzi IDOATE
Antonio OLANO
Mikel ALTZUART
Xabier LEGARRETA
Xabier SILVEIRA

Nafarroa osoko haurrak kantari

Irunberri, Lizarra eta Berriozarren jokatuko dira Haur Kantu Txapelketako kanporaketak

Nafarroako eskola-ikastoletan ari diren ikasle frankok zintzurra fin-fin eduki nahi izaten dute sasoi honetan, martxoaren hasieratik apiril bitartean euskal kantagintzarekin zita izaten baitute urtero. Aurten Emakumearen Egunarekin abiatuko da XXI. Haur Kantu Txapelketa. Lizarran burutuko da lehenbiziko kanporaketa, eta ondoko bi asteetan Berriozar eta Irunberri hartuko dute txanda. Finala, beti bezala, Iruñeako Gaiarre antzokian izanen da, apirilaren lehenbiziko igandean.

Izena emateko asmotan zabilatzatenek abudo mugitu beharko duzue, larunbat hone-

tan akautuko baita hortarako epea.

Aurten gure eskualdetik urrun xamar suertatu dira kanporaketa guziak, nahiz partehartzaile gehientsuenak bertakoak diren. «*Iaz Donezteben egin genuen, baina Nafarroa osoko ikuspegia eman nahi diogu*», argitu digu Kantuzaleen Elkarteak kide batek. Bertetik, iazko saioak arrakasta izugarria izan omen zuen Lizarran, «*800-900 bat ikusle bildu ziren, eta horregatik errepikatuko dugu han*».

HEMENGOAK ARRAS ONGI IAZ

15 lagun baino guttiagoko taldeetan, bina-ka zein bakarlarri gisa

ariko dira kantari, eta adinaren arabera txikien (7-11 urte) edo gazte-txoen (12-15 urte) taldean sartuko dituzte partehartzaileak.

Iaz inguru honetako abeslariak izan ziren nagusi Gaiarre antzokian.

Bakarlarri txikien artean Maider Ansa aranoarra gailendu zen, eta bikoteetan, berriz, Ene-ritz Arozena eta Saioa Taberna goizuetarrak.



Laburrak

Antzerkira

Baionako Antzokian, martxoaren 6an Els Comediants taldeak bere 25. urteurrena ospatuz «*Anthologia*» lana aurkeztuko duela eta harat gaterako autobusa antolatu dute Baztango Balleko Etxeak eta Arizkunenea Kultur Etxeak.

SARAKO URTXINTXAK Eskubaloia taldea



SENIOR Taldea

Jokalaria	Postua	Jaiotze Eguna
Myriam Lamothe	Atezaina	1980-02-17
Chantai Behoteguy	Zentrala	1976-07-08
Jacqueline Behoteguy	Hegalekoa	1973-06-14
Isabelle Behoteguy	Laterala	1975-04-29
Fabianne Goyetche	Laterala	1977-04-09
Sandrine Goyenetché	Hegalekoa	1975-06-24
Cathy Goyetche	Hegalekoa	1980-04-12
Sophie Irazabal	Pibota	1979-06-07
Mirentxu Azcarraga	Zentrala	1980-08-14
Marie Grillard	Laterala	1980-12-29
Maialen San Martin	Laterala	18 urte
Claire Urdanpilleta	Pibota	18 urte
Pantxika Paterne	Hegalekoa	18 urte

Entrenatzailea: Patxi Zamora



Patxi ZAMORA Entrenatzailea

«Urtero urtero ekipa aldatzen da eta honela zaila da mailaz igoitea»

Zein xederekin hasi duzue denboraldia?

Xede nagusia kirola egitea da, ez dugu bertzelako asmorik. Azken hiru urtetan, urtetik urtera ekipa aldatzen da, eta honela zaila da maila gaintzea. Sarako taldea berri-berria da, bortz urte bertzerik ez du.

Hainbertze talde gazte gibelean izanik, etorkizuna nola ikusten duzu?

Tiki-tikitatik eskubaloian jokatzen ari dira eta hori, senior mailan nabaritutako da. Orain bortz urte hasi ginenean neskek ez zekiten kirol honen berri, orain hartzen ari dire pittat.

Berrogeita hamar neska ari dira Sarako Urtxintxak taldearen izenean

Hand ball edo eskubaloia ia berrogeita hamar neska mugiarazten ditu Saran, sei urtetatik aitzina. Denak orain bortz urte sortutako Urtxintxak elkartearen izenean jokatzen dute. Eskolan 8 urte bitarteko neskek jokatzen dute, poussine mailan 9 urtetik 11 urte artekoak, minivan 12-13 urtekoak, kadete mailan 17 urte artekoak eta seniorretan 18 urtez goitikoak. Bortz talde guzira.

ru guti dugu eta beti galdeka ibili beharra dugu» erran daukute. Udan besta bat antolatzen dute eta «han biltzen da sos pixko bat». Elkartearen sartzeko lizentzia ordaindu behar da udan, baina partidak ikustera sartzeko ez.

Senior taldea, mailarik

«Beti diru galdeka ibiltzen gara»

Zuzendaritza bulegoan lan egiten dutenek errandakoaren arabera, «jokalaririk guziak saratarrak dire, bizpahiru senpentera eta azkaindarren bat ezik». Beraz, beraien helburu nagusia «herriko neskek kirola egitea da». Horrekin batera, bortz taldeak aintzina ateratzeko xoxaren bila aritzen dira bulegoakoak, «di-



Zuzendaritza bulegoan lanean ari direnak.

Klubaren datuak



Elkartearen izena:
SARAKO URTXINTXAK
Sorrera: 1993
Helbidea:
Salle Pollyvalente
64340 SARA
Tel.: 0559542945
Aurrekontua: 20.000 libera (2 milioi libera xahar)
Zuzendaritza Bulegoa:
Sei lagun ari dira.
Lehendakaria:
Jeanine Ichuribehere.
Sekzioak:
Eskubaloian bortz talde (Senior, kadete, minima, pous sine eta eskola)

apalenean aritzen da, baina, halere, zenbaitzutan Pabe aldera eta joan behar izaten dute jokatzera. Honek, noski, gastuak igotzen ditu. Entrenamenduak astean bitan egiten dituzte, asteazken eta ortziraletan.

Laguntzaile gisara aritzeko bertze entrenatzaileen bat lortu nahian ere dabilza.



Argazkia: Aitor

Saralegik 327 kiloko harria bizkarreratu zuen Donostian

- Euskadiko Sei Orduak txirrindularitza probaren barrenean
- Hemezortzi segundu behar izan zituen harria bizkarreratzeko

Mieltxo Saralegi leitzarrak 327 kiloko harria 18 segundutan bizkarreratu zuen otsailaren 7an, Euskadiko Sei Orduen barrenean, honenbertez munduko marka berri bat ezarri.

Harri berarekin beste bi saio eginak zitu-en Saralegik, ekainean Gasteizen eta uztailean Ezkarotzen. Bi ekitaldi horietan lortu ez zuena Donostian lortu zuen. Ez da lehen aldia Sei Orduetan marka bat egiten duena, iaz ere marka berria egin baitzuen 325koa altxatuz. 326koa, berriz, Beasainen jaso zuen, apirilaren 18an.

«PRESTATZEN SEGITUKO DUT»

Lana bukatzerakoa, leitzarrak altxaldia

nola ikusi zuen agertu zuen: «*Nahiko goitik hartu dut harria, izan ere izterrak izerditan nituen eta harria irris-tatzeko beldurra nuen, eta honela eginda gehiago kostatzen da bu-larrera ekartzea, bai-na azkenean dena on-gi atera da.*».

Halere, lanean hasi baino lehen zalantzak bazituela onartu zuen Mieltxok: «*Bai, banituen zalantzak, izan ere azken entrenamenduan on-gi jaso nuen harri hau, baina aurrekoan ez nuen*

bizkarrera arimatu ere egin. Beti izaten dira zalantzak, egun bate-tik bestera aldatzen baita, baina belodromo-ko giroak ere lagun-du egin didala uste dut.».

Bertan bildutako jendeak, ordea, 'beste

328

«Dei pare bat hartu dut 328koa altxatzeko, baina ez dakit non eta noiz izanen den»



Saralegi lanean eta, marka berria lortu ondotik, pozik. 328koarekin saiatuko da orain. Arg: Egin

bat' eskatzen zuen. «*Beste bat –zioen Saralegik– ez al daba batekin nahikoa? Jendeak asko eskatzen du, baina hemen topera ibiltzen gara eta ezinezkoa da.*».

Hurrengo pausua 328 kilokoarekin ahallegintzea izanen da. «*Dei pare bat hartu dut, baina ez dakit noiz eta non izango den, nik orain prestatzen segituko dut.*».

Berako IX. mendi bizikleta ibilaldia igandean



Igande honetan, martxoak 1, burutuko da Gure Txokoa elkarteak, Berako Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz bederatzigarren urtez antolatutako Berako mendi bizikleta ibilaldia. Goizeko 10etan aterako dira partehartzaileak eta bi ibilbide izanen dituzte aukeran, 18 eta 28 kilometrokoak.

Amaia Lujanbio Euskadiko kross txapeliduna



Amaia Lujanbio korrikalari goizuetarra irabazle suertatu zen otsailaren 8an Lizarran jokaturako Euskadiko Kross txapelketan, kadete mailan.

Haur mailan Nafarroako txapelketa irabazia bazuen ere, hauxe izan da goizuetarraren garaipenik haundiena. Ez dabila azkena izan.

Mikel Goñik eta ASPEk kontratua hitz emana dute



Mikel Goñi pilotari oronoztarrak aurrekontratua sinatu du ASPE enpresarekin. Bi urtez Asegarcen egon ondotik, enpresa honek ez omen dio gustoko eskaintzarik proposatu Goñiri, «*kantxan nahikoa erakutsi ez du-lako*». Enpresa berria, ordea, ez da iritzi berekoa eta eskaintza polita egin dio oronoztarrari.

AGENDA EGUNEZ EGUN

ANTZERKIA

BERA

- **Martxoaren 6an**, ortzirala, arratsaldeko 8etan «Con lo puesto» antzeslana Kultur Etxean.
- **Martxoaren 7an**, larunbata, arratsaldeko 7etan solasaldi antzeslana, Lamixine BAT taldearen eskutik, Kultur Etxean. Bi ekitaldiak, Emakumearen Astearen barnean, Uxua taldeak antolatuta.

BAIONA

- **Martxoaren 6an**, ortzirala, arratsaldeko 9etan Antzerkian Els Comediants taldearen «Anthologia», beraien 25. urteurrena ospatuz. Baztandik autobusa antolatuta da.

EMAKUMEAREN EGUNA

DONEZTEBE

- **Martxoaren 6an** "Osasuna eta Sexualitatea" ren gaineko txar la eskainiko du lta Sa-gaseta COFES Hai-zea-ko langileak. 7,30etan Mankomunidadearen egoitzan. Ondotik afaria egingen dute arkupean (9,30etan). Menua: Entsalada mixtoa, fritoa, oilasko errea, postrea, kafea eta kopa. 1.500 Pta. Heldu den asteazkena da apuntatzeko azken eguna.
- **Martxoaren 7an** 7tan, "Acusados" fil-mea botako dute Doneztebeko eskolan. Pelikularen ondoren solasaldia egingen dute (pastak-eta izanen dira pikatzeko). Antolatzaile: Ezpelurra taldea.

AGENDA PRAKTIKOA



ttipi-ttapa
TELEBISTA



☎ 948 631 188

Zure deiaren esperoan gaude

Telebista aintzin pausuak ematen ari da

Jendearen laguntza ere nahitaezkoa dugu

TTIPI-TTAPA telebista azken hilabeteotan aintzin pausuak ematen ari da. Jakina denez, lehen emisioak prestatzeko hango eta hemengo irudiak jasotzen ditugu, zonaldeko gertaera eta ekitaldien inguruan. Baina horretaz gain, bertze hainbat lan gauzatzen ari gara, lokala egokitzen, ekipoa osatzen, langilegoa trebatzen...

Jendearen laguntza ere beharrezkoa ez ezik, nahitaezkoa dugu. Izan ere, ez baitugu nahi zuek ikusle hutsak izatea, zuen ideiak, gogoak eta aportazioak gustora jasoko ditugu. Eta zertan la-

guntzen ahal duzuen? Hainbat gauzetan: Etorkizuneari egingen ditugun saioetarako gidioak prestatzen, kamara aitzinean aurkezleak izaten -lotsarik gabe!- edo zure herrian, auzoan edo etxean gertatu edo gertatu behar den edozein ekitaldiren berri emanez.

Eta nola lagundu? Eskutitzen bitartez, telefonoz, Berako Herriko Etxean dugun bulegora agertuz edo gure kamarak kanpoan lanean ikusiz gero, haiei zuzenki aipatuz... Animo! Seguru gureak bezain ideia onak -edo hobeak- dituzuela.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 9.900 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 182 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 100 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra 570
1.koa 550
2.koa 530
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra 570
1.koa 560
2.koa 540
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 18.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
Mestizok: urruxak 32.000 eta idixkoak 40.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nobar gizona: 360 Pta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

DISKAK



«Bide laburra»

2 Kate

Esan Ozenki

Izaskun Forcada eta Mikel Anestesiak osatzen dute 2 Kате. Lehenak, ahotsa jartzen du, bigarrenak kitarra, ahotsa, sampler eta erritmo programaketak. Lehen gainera, zuzeneko emanaldietan, dantza eta koreografian aritzen da, Amaia Alkortarekin batera. Izan ere, zuzenean taldeak garrantzi berezia ematen die koreografia eta eszenografiari.

«Bide laburra» izeneko disko honen grabaketan, zuzeneko emanaldietan bezala, Kaki Arkarazo izan dute teknikari lanetan. Erritmo programatuak, sanplerren eta gitarra hotsen artean Izaskun eta Mikelen ahotsak sexua eta maitasunari, bizitza eta heriotzari, zorientasuna eta bakeari kantatzen die.

Argiatik bildua

JAKIN BEHARREKOAK

Euroa ate joka (eta II)

Hondarreko alean aipatu genuen bezalaxe, urte bat eskas falta da euroa indarrean sartzeko —nahiz eta aldaketa ez den bapatean gauzatu—, bizpahiru urteko prozesuaren ondotik baizik— eta moneta berriaren inguruko kontuak ditugu oraingoan ere mintzagai.

Erran bezala, libera edo pezetatik eurorako bidea 1999an hasiko da, baina salto nabarmenena 2002. urteko urtarrila eta uztaila bitartean emanen da. Denboraldi horretan euroak nahiz oraingo txanponak erabiliko dira dendako, tabernako edo zernahi salerosketa egiteko orduan, eta beraz, bietan paratu beharko dira produktuen edo zerbitzuen prezioak. Urte hasierako merkealdiak direla kontuan hartuta, moneta berriaren sarrerak nahaste-borraste ikaragarria sortuko duela pentsatzekoa da.

Europar zehar merkeago

Euroarekin Europar barrena ibiltzea erraxagoa izanen da, moneta bakarra izanen baita herrialde guzietan, eta



Gel
litro bat:
305 pta,
12,2 libera
1,85 euro

Kirol oinetakoak:
8.100 pta,
324 l,
49,15 euro

Aretxe xerra kiloak:
1.300 pta, 52 l
7,89 euro

ez dugu diru aldaketan komisorik ordaindu beharko herrialde batetik bertzera pasatzen garenean aldiro. Horra hor euroak ekarriko duen abantaila, gure mugetatik at eroatea merkeago izanen dela, alegia. Bertze onura ga-

rrantzitsu bat prestamoak eskatzerakoan somatuko dugu, inflazioa, defizita eta interes gaineke kontrol zorrotza ezarriko duen Europar merkeago izanen baita maileguak lortzea.

Bertzalde, biharko Europar kontsumoa eta kompetentzia orain baino aise haundiagoak izanen direla segurtatzen dute ekonomian adituak direnek, produktu eta zerbitzuen prezioak parekatuago egonen direlako.


Adibide bat jarriko dugu akitzeko: Demagun euro bat 164, 789 pta direla, edo 6,6 libera. Gaur egungo 2 milioi pezetako-80.000 libera- auto baten prezioa 12.136,73 eurokoa litzateke zehazki.

IRATXE

Kontsumitzaileen Elkarte

3 «Gaur egungo
2 milioi pezetako
-80.000 libera-
auto baten prezioa
12.136 euroko
litzateke zehazki».

LIBURUAK



«Isladak»

Unai ITURRIAGA
ZUBIA-ALFAGUARA

Durango bertsolariak idatzi duen lehenbiziko liburu honean, zenbait autore desberdinen poemak ageri dira ezker aldeko orrialdeetan, eta eskuinekoetan berriz, Iturriaga berari poesia hoienguz inguruan sortzen zaizkion burutazio eta komentarioak.

Bere helburua ez da izan, hala ere, poema horien iruzkin kritikoa egitea, irakurleak-gaz-

teak batez ere—poesiaren mundura hurbiltzea baizik. Besteak beste Xabier Leta, Joseba Sarrionandia, Bertold Bretch, Cesare Pavese, Pako Aristi, Marta Tikkanen eta Walt Whitmanen poemak aukeratu ditu bilduma hau osatzeko, eta erran behar da jorratzen diren gaiak aski zabalak direla. Azala eta barruko irudiak Iñigo Ordozgoitirenak dira.

AGENDA EGUNEZ EGUN

► Martxoaren 8an

Antzerkia: "Amor y sexo" antzeztuko du Aula de Jus Larracha taldeak. Arratsaldeko 7,30etan Doneztebeko zineman. Antolotzaile: Ezpelurra.

ZINEA

LEITZA

► Otsailaren 27 eta martxoaren 1ean "Abre los ojos".

► Martxoaren 6 eta 8an

"Martin Hache"

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

► Martxoaren 1ean

Elurretara joanen dira Baztango Mendigoizaleak. Izena Elizondoko Mendi ostatuan eman beharko da.

► Martxoaren 8an

Aiako Harrietara izanen da irteera.

► Martxoaren 1ean

Ikastolako Mendigoizaleak elurretara egiten dute irteera.

► Martxoaren 8an

Ikastolako Mendigoizaleak Arizkun-Xorroxin ibilbidea egiten dute.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► Otsailaren 23tik martxoaren 1era

Igantzi, Sunbilla, Lezaun (Elizondo), Leitza eta Goizueta.

► Martxoaren 2tik

8ra Lesaka, Ituren, Iturralde eta Goizueta.

► Martxoaren 9tik

15era Bera, Narbarre, Lezaun, Urdazubi eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko

zein erraza den
zure anuntzioa
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparaldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak

203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Salerosketak
602. Emateko
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdut / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ERRATZU. Pisu berri-berria salgai, 3. solairuan. Sukalde mobleztatua eta gelak armairu enpotratuekin. ☎ 0559203049 (Iparaldetik). 0733559203049 edo 453146 (Hegoaldetik).

BERA. Pisua salgai. Sukaldea, egongela ederra, 3 logela eta bainugela. Aszensore eta ganbararekin. ☎ 631305.

BERA. Pisua salgai, 3. solairuan. Mobleztatua eta arras eguzkitsua. Urruña plazan. ☎ 306502 eta 450054.

BERA

Etxea salgai

Kaxerna auroko 8. zenbakia, 3.000 m²ko lur-eremuarekin, 400 m² erabilgarriak, 2 egongela, 7 logela, 4 bainugela, sukaldea, jangela, despentsa, garajea eta terraza. ☎ 631137/630941

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

Borda bat erosiko nuke, egoerak ez du inporta. ☎ 451841.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BERA. Pisu bat errentan emanen nuke, mobleztatua. ☎ 630270 (eguerdi-arratsetan).

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

LESAKA. Etxe edo base-ri bat errentan hartuko nuke. Merkea eta zaharra bada, ezin hobe. ☎ 909.477277 (Imanol).

LEITZA. Pisu bat errentan hartu nahi da martxoan. Erdi amueblatua edo amueblatua. ☎ 513010.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALGAI

LESAKA. 23 m²ko bajera salgai, Bittiria 37.an. ☎ 637938.

Martxan dagoen komertzioa salgai BERAn.

56 m²ko denda eta 75 m²ko gibelaldea. Guztiz ekipatua.

ROMANO DEKORAZIOA

Legia, 1 ☎ 631137/630941

LURRAK/ORUBEAK

112 SALGAI

BERA. Lur-eremua salgai, etxea egiteko egokia. ☎ 451841.

BERA. 28.000 m²ko lur-eremua salgai. ☎ 630040.

LANA

302 ESKAINTZAK

DANTXARINEA: Langile bat behar dugu Mikelen-borda ostatuan lan egite-

ko. Frantsesa pittat konprenitza eta kotxea izatea beharrezkoa da. ☎ 599045.

Trikitrixa, gitarra eta bateria joleak behar ditugu. ☎ 627661.



Leitza inguruko kolaboratzaileak behar ditugu Irurtzongo bizitza-aseguru sailerako

- Bigarren mailako dedikazioa.
- Publizitatea eta laguntza lortzeko laguntza.
- Diru-sartze interesgarriak.

Interesatuak deitu
989-700995 telefonora
(Gloria Azpilikueta).

San Martin, 14 • **IRURTZUN**

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Peugeot 306 S16 salgai. 1995eko eta ekipamendu guziekin. ☎ 630766 (Joxe Mari).

Renault Express 1.4 kristaletua salgai. NA-V. ☎ 630766 (Ramón).

Peugeot 505a salgai. 75.000 pta. ☎ 630869.

Ford Fiesta XR2 salgai. NA-AD, sei urtekoa eta prezio onean. ☎ 451559.

Renault 11 gorria, Broadway modelokoa eta NA-V matrikuladuna salgai. Gosalinazkoa. ☎ 610760.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAU MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak: Astra turbodiesela, Panda, Fiat Tipo, Audi 100 turbodiesela, R-19, Kadett GSI eta Corsa Diesela, Vitara deskapotagarria. Suzukiak: Vitara eta Samurái.



Bigarren eskuko kotxeak, furgonetak eta 4x4ak erosten ditugu.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

NISSAN BERABI tailerrak

☎ 631445 • BERA

Bigarren eskuko kotxeak: Nissan Trade 2.0 chasisa Nissan Almera D.A.A. NA-AP Land Rover motza, NA-K Peugeot 309 GR - NA-T, polita Kotxe berrietan ofertak



AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerrak

Iturialdeta, 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

4 urteko zezen pirenaikoa salgai. ☎ 637327 (Joxe Angel).

Esneta behi pinttoa salgai, lehen umetik azken hilabetean ernari. ☎ 510401.

90 ardi salgai, beren dertxoekin. Latxa arraza eta mutur gorrikoak, otsailaren 20tik aurrera umatzeko. ☎ 397039.

5 ardi-txakurkume salgai. ☎ 397039.

Ahari bat salgai, 4 urtekoa, adarrak gabea eta mutur marroia. ☎ 630980.

Esneta behi bat, erditu berria, merke salduko nuke. Esne aunitz ematen du. ☎ 581023.

Ahuntza salgai, hilabete bateko antxumearekin. ☎ 599141 (Zugarramurdi).

Katakume pertsua erosiko nuke. ☎ 451841.

Bi behien kuota erosi edo hartuko nuke. ☎ 615067 (ilunabarrean).

ANIMALIAK

603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak

☎ 631362 • Legia/13 • BERA



DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Toki Ona institutuko atarian gizonezko txaketa berde bat agertu da, 54. tallakoa. Deitu 630411 telefonora, goizez.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Piragua gorri bat salgai, ur bizikoa eta Skimo Gatino markakoa. 50.000 pezeta. ☎ 451545.

Billar-amerikar mahaia salgai, egoera onean. 30.000 pta. ☎ 393115.

Haritz amerikano landareak salgai. ☎ 450888 (eguerditan eta arratsetan).

Bigarren eskuko **gasoleozko kaldera** bat erosiko nuke. ☎ 610859.

Esne tankea salgai, 330 litrokoa. ☎ 630040 (gauetz).

Esne tankea salgai, 320 litrokoa. ☎ 599141 (Zugarra-murdi).

Belarra igotzeko tresna elektrikoa salgai. ☎ 510360.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Ezcurrako M^a Carmen-eri: zuretz nago enamoratua. A.M.

Jaione Andueza doneztebarrak 18 urte bete ditu. Zorionak zure lagunentz. Espero dugu txanpain bostil batera gonbidatzea.

Ander Aranbururi zorionak atzerapen pixko batekin (otsailak 4) Jon eta Xabieren partez.

Zorionak Barruri (martxoak 20). Lagunen partez.

Xabi Altzuriri zorionak. Jon, Ander R. eta Iñakiren partez.

Asierren partez muxu haundi bat Elirentzat.

Jokin Igantziren partez

Ainhoa Retegiri: Nerekin atera nahi duzu?

Iruritako Modesto A.ri: Otsailaren 13an 20 urte bete ditu. Segi beti bezain mautz. Zorionak Jaioneren partez.

Juanjo Irazokiri zorionak otsailaren 27an 28 urte be-

teko dituzulako. Ea bonboi kajaren bat edo txanpain pixka bat ekartzen diguzun. Elkarte Anonimoa.

Lesakako Edurne Mitxelena 21 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak lagunentz partetik. Muxu hundi bat.

Nekazari eta abeltzainek behar duten guztia Kutxa honetan dago



P.A.C. 98

Ayudas Compensatorias Comunitarias

Aholkularitza, Tramitazioa, Esperientzia... eta ohituta zauden arreta.

AURRERA ZAITEZ, ZURE BULEGORA JOAN ETA TRAMITAZIORAKO EGUNA GORDE



NAFARROAKO RURAL KUTXA
CAJA RURAL DE NAVARRA

ttipi-ttapa Ameriketara bidaltzea erdi prezioan gure bitartez

Iparraldetik deitzeko 19-34-48- Hegoaldetik deitzeko 948- 631188



URTEBETETZEAK

Sail hau debaldekoa da.
Norbit zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa
Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago badituzue pasatu gure bulegotik.



Jon Erro Fagoaga
lesakarrak urtea beteko du otsailaren 27an. Zorionak atta eta amaren partetik.



Martin Anzi-zarek urteak beteko ditu otsailaren 26an. Zorionak Lesakako familiaren, emaztearen eta b semeen partetik.



Asier Goia del Moral beratarak urtea beteko du otsailaren 25ean. Zorionak familiaren partetik.



Elena del Moral Ariztegi elizondarrak urteak beteko ditu martxoaren 7an. Zorionak familiaren partetik.



Olatz Rojo Larralde lesakarrak 8 urte beteko ditu martxoaren 1ean. Zorionak eta muxu bat guraso eta Teresaren partez.



Ibai Bereau Zapirain lesakarrak 9 urte beteko ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta familiaren partez, baita aitari ere (egun berean).



Arantxa Lizaso legasarrak urteak bete ditu otsailaren 6an. Zorionak eta badakizu, bombeo-bombeo... Zure irakaslea.



Miren Beola arraioztarrak 16 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak Joxe, Axun, Nekane eta Ana Belenen partetik.



Miren Zelaieta Guerra barañaindarrak urtea beteko du otsailaren 27an. Zorionak familiaren partetik.



Joseba Martinez Guerra beratarak 4 urte bete ditu otsailaren 17an. Zorionak familiaren partetik.



Iñigo Martinez Guerra beratarak urtea beteko du otsailaren 23an. Zorionak familiaren partetik.



Janire Andres Zapiain beratarak urtea bete du otsailaren 21ean. Zorionak Jon Ander, Xabar eta Manexen partetik.



Beñat Eskudero Irurueta elizondarrak 4 urte bete ditu otsailaren 22an. Zorionak aitaxo eta amaxoren partetik.



Irene Zelaieta Iriarte beratarak 14 urte beteko ditu martxoaren 6an. Zorionak zure familiaren partetik.



Jon Jaunarena zorionak bere seigarren urtebetetzean (martxoak 2). Musu handi bat aita, ama eta Xabieren partetik.



Urdazubiko Juan Felixek 32 urte bete ditu otsailaren 7an. Zorionak laguneren partetik eta muxu bat Maitearen partetik.



Urdazubiko Jose Antonio urteak beteko ditu otsailaren 27an. Belarri tiraldia laguneren partetik eta muxu bat Kororen partetik.



Urdazubiko Justo urteak bete ditu otsailaren 23an. Zorionak laguneren partez eta muxu bat beratar baten partetik.



Elena Ansalas zugarramurdiarrak 15 urte bete ditu otsailaren 18an. Zorionak errekreoko laguneren partetik.



Urdazubiko Tomas Ariztiari zorionak 35 urte bete ditu otsailaren 21ean. Muxu handi bat lantegiko laguneren partetik.



Xabier Alustiza Tolosa aresoarrak otsailaren 26an bete ditu urteak. Zorionak aitona, amona eta izebaren partetik.



Uxoia Mitxelena Arriada lesakarrak 5 urte beteko ditu martxoaren 5ean. Zorionak Iñigo, Josune eta Lauraren partetik.



Erika Choperena Aldanondo beratarak 8 urte beteko ditu martxoaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



Jon Gago Lukanbio sunbil-darrak 3 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak Arantzako familiaren partetik. 3 muxu bat.L.T.



Maider Almandoz aranz-tarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 17an. Zorionak lagunak eta familiaren partetik. Muxu bat.L.T.



Miren Beolak 16 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak errekreoko laguneren partetik.



Itsaso Huizi Pradanos beratarak otsailaren 20an bete ditu 14 urte. Zorionak familiaren partetik.



Naiara Riopedre beratarak otsailaren 27an beteko ditu 13 urte. Zorionak familiaren partetik.



Elena Alzugarai lesakarrak otsailaren 22an beteko ditu urteak. Aunitz urtez!



Paki Salgado lesakarrak 35 urte bete ditu otsailaren 22an. Zorionak familiaren partetik.



Ana Carciak 29 urte bete ditu otsailaren 19an. Zorionak karka!



Esteban Jaurena Azkarraga amaizurrak 13 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak Maite eta Amaizaren partetik.



Itziar Telletxea Iguzkiagirrek marxoaren 3an beteko ditu 5 urte. Zorionak Igantzitik.



Xabier Mari-txalar NARBARTE lesakarrak 12 urte beteko ditu martxoaren 7an. Zorionak osaben eta aitabxien partetik.



Oihana Telletxea Garmendia donamariarrak 9 urte beteko ditu martxoaren 25ean. Zorionak familiaren partetik.



Juana Urrutia arraioztarrak otsailaren 21ean egin ditu urteak. Zorionak familiaren partez, bereziki Pedro senarraren partetik.



Izaskun Tapia igantzarrak urteak beteko ditu martxoaren 4an. Zorionak printzesa. Aupa egin gogor!



Jone Olaetxea Sanz beratarak 4 urte bete ditu otsailaren 25ean. Zorionak familiari guziaren partetik.



Karmen Ibarra etxalartarrak urteak bete ditu otsailaren 21ean. Zorionak Axi, Nagore eta familiaren partetik.



Muttuk 16 urte beteko ditu martxoaren 4an. Kontuz "con el joven". Ez begitu hainbertze. Kokxa, Xokra eta Xenbaki.



Juan M. Gortarik otsailaren 19an urteak bete ditu. Zorionak eta muxu bat anai-arreben, iloben eta amaren partetik.



Bittor Txantre Irazoki pilotari handiak 5 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu aunitz.



Hegoa Telletxea Andueza beratarak 3 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak Oier, atta eta amaren partez.



Itziar Jorajuria doneztebarrak 11 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak bere familiaren partez.



Nekane Retegi etxalartarrak 23 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak zure koadrilaren partez.



Aintzane Oiarzabal Ceballos leizarrak urtea bete du otsailaren 26ean. Zorionak! Joritz, aita-ama eta familia guztia.



Sara Salaberriak otsailaren 24an 4 urte bete ditu. Zorionak Igone eta bere familia guziaren partetik.



Gabi Salaberri Prados oronoztarrak 10 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak Usurbilgo familiaren partetik.



Jose Luis Goñi arantzarrari zorionak otsailaren 16an 31 urte bete dituelakoz. Bere familiaren partetik.



Peio Bastez iturendarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 25ean. Zorionak aita, ama eta Itziarren partetik.



Prezioa
zuk jarri
sukaldea
guk jarriko dizugu



KIA Sportage:
Urteko 4X4a
Alemanian.
Etorri eta
proba
ezazu

25 urte
zuen
zerbitzura

 KIA MOTORS

Zerbitzu Ofiziala

SAMPI ARAGON

SPORTAGE

Leitzako errepidea
© 450354 / 450759
DONEZTEBE

S. SEMPER

Makineria

Ergoien Auzoa
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)
Tel. eta Faxa: (943) 49 06 19



Landini Erantzun ziurra



"LA ARTESA" MOBLEAK

NAFARROA ETORB., 13 • IRUN
TEL. (943) 62 53 82

LUIS TOLOSA INPRENTA

ELIZA, 2 • IRUN
TEL. (943) 624500-624921

ETXALAR HOTEL-JATETXEA

IRUÑERAKO ERREP., 70. KM.
TEL. 635000 (ETXALAR)

MARI NIEVES ANDREGAI ARROPA

LUIS MARIANO, 6 -3.B • IRUN
TEL. (943) 627977

ZINNIA LOREDENDA

GIPUZKOA ETORB., 32 • IRUN
TEL. (943) 617371

OLATZ BITXITEGIA

SAN PEDRO, 3 • HONDARRIBIA
TEL. (943) 645678

DANETIK BIDEO DIGITALA

SANTA MARIA, 19 • ZARAUZ
TEL. (943) 133123

VALLINA AUTOAK

DONOSTIA
TEL. (943) 393848

BAZTAN-BIDASOA CAVA

ERRANDONEA • BERA
TEL. (948) 630982

BETI-JAI MUSIKA

LESAKA
TEL. (948) 637183

MARIA JOSE GOZOTEGIA

NAFARROA ETORB., 4 • IRUN
TEL. (943) 623703

CORTEBLANCO GIZON ARROPA

TRIUNFO, 3 • DONOSTIA
YOAN ILEAPAINDEGIA

BIDASOA, 16 • BERA
TEL. 630177

FOTO ZALDUA

TEL. 580491 (ELIZONDO)
TEL. 450 364 (DONEZTEBE)

M^o CRUZ LENTZERIA

PARROKIA, 11 • DONEZTEBE
TEL. 450112

TATIANA DANTZA ESTUDIOA

PINAR, 5, BEHEA • IRUN
(943) 629210

'98
ezkongaiendako zerbitzu
profesionalak



Ezkongaien
ferian jasotako
txartela denda
hauetako
edozeinetan
aurkeztu eta bere abantailak
deskubrituko dituzte.

ZALANTZARIK GABE... ZURE EZKONTZARAKO PROFESIONALIK ONENAK